

GUaixe.eus



Futsalsakana txapelketako finala gaur



Kirolak >> 12

VI. Altsasuko Duatloia bihar jokatuko da. 10:30ean Nafar Kirol Jolasen duatloi proben txanda izanen da; 16:00etan helduak



Kirolak >> 11



Kepa Junkerak eta Brun forjako forjariak Aldapeko jo zuten Bidelagun elkarteko kideen aurrean.

Bidelagun, handituz doa >> 5

Atzo hasi zen Korrikak bi pasa eginen ditu Sakanatik

Aurreneko pasa bihar, larunbatean, goizaldeko 1:57an eginen du, Irurtzundik. Hilaren 28an zeharkatuko du Sakana >> 3

Altsasu, aste batez, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren egoitza

Musika eskolan, adinduen egoitzan eta ikastetxeetan ariko dira. Despeditzeko kontzertua emanen dute >> 15

Altsasuko festen kontsultako galdera batzarrean erabakiko da

Batzarra igandean, 18:00etan >> 6



Elaide.eus, harremanak euskaraz izateko sarea >> 3



Eskolarako xenda eginen du Udalak Iturmendin >> 7



Mendialdearen garapen lokala zehazteko bilera 24an >> 5

Kirola egiteko prest?

Martxoaren 27an Guaixean Kirol gehigarria

Publizitatea hemen: 948 564 275 • publi@guaixe.net • publizitatea@guaixe.net

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guzietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860

MARTXOAN
%5 EKO
DESKONTUA



marsuak

20-26

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Lexuri

Ari ari gora gure dantzari! Zenbatzeko hatz guziek akatuko dazkizu urte hortan Zorionak eta egun ona pasa!



Ane Oraa Gonzalo

ONGI ETORRI, Ane, po-txola!! Zure amaren eta aitaren partez. Muxu asko.



Mikel Oraa Azpilikueta

ZORIONAK zure lehen urtean aitaxo bezala!! Muxu asko.



Badator Korrika 19. Martxoaren 20an, ostiralean, 15:30etik aurrera Irurtzunen. Ikus 3. orria.

Badator Korrika 19. Martxoaren 21ean, larunbatean, 9:30etik aurrera Lakuntzan. Ikus 3. orria.

Petoen margotzea. Martxoaren 21ean, larunbatean, 16:00etan Uharteko Arakilgo Haur txokoa.

Korrika Txikia eta txokolate jatea. Martxoaren 21ean, larunbatean, 16:30ean Arbizuko plazan.

Korrika Txikia. Martxoaren 21ean, larunbatean, 17:00etan Arruazun.

Areto futboleko txapelketa. Martxoaren 21ean, larunbatean, 18:00etan Uharteko Arakilen.

Korrika afaria. Martxoaren 21ean, larunbatean, 22:00etan Urdiaingo Aitziber elkarte.

Korrika afaria. Martxoaren 21ean, larunbatean, 22:00etan Ziordiko elkarte. Sagardotegi menua.

Oso printzesa iletsua. Martxoaren 22an, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean. Antzerkia.

Korrika Txikia. Martxoaren 22an, domekan, 17:30ean Bakaikutik Iturmendira.

Beti lagun. Martxoaren 22an, igandean, 18:00etan Irurtzungo kultur etxean. 2 urtetik aurrera. Rosa Martinez. Txotxongilo antzerkia.

Korrika Txikia eta argazki erraldoia. Martxoaren 22an, domekan, 19:00etan Ziordiko plazan.

Korrika Txikia. Martxoaren 25ean, asteazkenean, 12:00etan Altsasuko Foru plazan.

Mintzodromoa. Martxoaren 26an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Foru plazan. Eguraldi txarrarekin Gure Etxea eraikinean.

Musika

D-Pintxos, Bagauda eta Guri 5. Martxoaren 21ean, larunbatean, 23:00etan Bakaikun. Gazte Eguna.

Trotamundotsn. Martxoaren 24tik 28ra, asteartetik larunbatera, Altsasun. Nafarroako Orkestra Sinfonikoa.

Antzerkia

Ovarios verdes fritos. Martxoaren 21ean, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. Detritus teatro.

Zinema

El abuelo que salto por la ventana y se largo. Martxoaren 20an, ostiralean, 21:45ean eta martxoaren 22an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Siempre Alice. Martxoaren 20an, ostiralean, 22:00etan eta martxoaren 22an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Bob Esponja. Martxoaren 22an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Descifrando el enigma. Martxoaren 26an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean

Ikuslearen eguna, 3 euro.



Mendi irteerak

Ernalde, Ernio, Iturrioz. Martxoaren 22an, igandean, 7:00etan Olatzagutitik abiatuko da autobusa. Sakanako Mendizaleak.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Urritzola-Altsasu. Martxoaren 21ean, larunbatean, 10:00etan Altsasuko kultur gune paretik. 74 km. Zikloturista taldea.

Lubierrri-Abelbidea. Martxoaren 22an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 9:20ean Bioitza kanpinean. 57 km. Burunda txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.

Erakusketak

Hiri paisaia. Martxoaren 30era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. Gardena taldea.

Hitzaldiak

El protagonismo de la mujer en el cambio político. Martxoaren 25ean, asteazkenean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. Hizlariak: Sara Brun, Margarita Agudo eta Nieves Recalde. **Podemos Altsasu Ahal Dugu.**

Euskal preso politikoen egoera gaur egun. Martxoaren 26an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Zubi-ondo elkarte. Hizlaria: Juan Mari Olano.

Tailerrak

Aurreiritzirik ez, mesedez. Martxoaren 20an, ostiralean, 17:30ean Irurtzungo Gazte Txokoa. Gidaria, Alicia Pano.

Haurren izaerarekiko errespetua eta autonomia izateko laguntza. Martxoaren 25ean, asteazkenean, 17:00etatik 19:00etara Irurtzungo kultur etxean. Izen ematea 620 0254 230, Amalur elkarte.

Basoko plana berritzeko parte hartze prozesua ixteko saioa. Martxoaren 25ean, asteazkenean, 18:00etatik 20:00etara Etxarri Aranazko udaletxean.



Bestelakoak

Gazte Eguna. Martxoaren 21ean, larunbatean, 14:30etik aurrera Bakaikun. **BGA, IGA eta UGA.**

Billar txapelketa. Martxoaren 20an, larunbatean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Nafarroako Mendiaren Garapen Lokaleko Estrategia Parte-Hartzailea 2014-2020. Martxoaren 24an, asteartean, 18:00etatik 21:00etara Arbizuko Utzugane zentroan. **Cederna-Garalur.**

Deialdiak

Hipotekek kaltetutakoen Plataforma. Martxoaren 16an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Martxoaren 20an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Sakanako herri programa. Martxoaren 21ean, larunbatean, 9:30etik 13:00etara Etxarri Aranazko kultur etxean. **EHBildu.**

Festen datari buruzko batzarra. Martxoaren 22an, domekan, 18:00etan Altsasuko Burunda pilotalekuan. **Altsasuko Festen Batzordea.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Martxoaren 22an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.eus

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA
ASTEKO ERREPASOA:
Nafarroako Orkestra Sinfonikoa,
Altsasu Memoria,
Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Esataria: *Eneida*

SAKANA

Goazen denok Korrika!

Atzo abiatu zen Korrika, Urepelen. Gaur goizaldean Irurtzundik pasako da baina Sakana punta batetik bestera martxoaren 28an zeharkatuko du, goizaldean

Atzo abiatu zen, arratsaldeko bostetan, 19. Korrika, Urepelen, makina bat jenderen babesa zuela. Urepeletik hasi eta Euskal Herrian barna ibilbide zabala egingo du Korrikak, 11 egun eta 2.459 kilometro gainditu ondoren martxoaren 29an Bilbon despeditzeko, "Euskaldun" lelopean.

Euskaldun

"Herri hau euskaraz pentsatuko dugu, edo ez da izanen" esan zuen Amets Arzallusek Korrika 18ren bukaeran, Baionan. "Hortaz, euskaldundu gaitezen" erantzun dio aurtengo Korrikak. "Ahdundu gaitezen euskararen eta euskalgintzaren egoeraz. Batu ditzagun nire, zure, haren ahalegin pertsonalak eta biderka dezagun gure ahalmena auzolanean. Egin dezagun eta eragin. Eta eragin. Euskaldun guztiok osatzen dugu

Arbizu eta Murtxante arteko desafio arrakastatsua



Korrikaren alde, Arbizu eta Murchanteren arteko herri kirol desafioa egin zen atzo Murchanten. Tuterako Argia ikastolako Mikel Navarro irakasle arbizuarrak adierazi digunez, oso arrakastatsua izan zen ekimena. Arbizutik 100 pertsona inguru hurbildu ziren, eta murtxante-ar askok egin zieten ongi etorria. Kalejira egin ondoren, frontoian egin zuten desafioa. Gutxigatik Murchantek irabazi zuen. Bitartean txistorra, gazta, Murchanteko ogi txigortuak eta ardoa dastatu zituzten. Bazkariaren ondotik trikiti doinuekin eta jotekin luzatu zen festa.

Segurtasun arauak

Korrika gaur pasako denez, ezinbestekoa da korrikalaria bere burua iluntasunean nabarmentzea. Horregatik, arropa islatzailak edota linternak eraman behar dituzte; ikusteko eta ikusiak izateko. Korrika etorri aurretik eta joan ondoren errepidearen ezkerreko bazterbidean ibili behar da, errepidera aterata gabe. Beharrezkoa ez bada, ez gurutzatu errepidea.

Informazio gehiago:

www.korrika.eus

guztion artean, auzolanean eta elkarlanean, lortu ahal dugula euskaraz biziko den herria, euskalariz osatutako herria". Hori da Korrikak aurtengo aldarrikatu nahi duen mezua.

Korrikak aurtengo 50 urte bete-ko dituen Durangoko azoka omen-duko du, "liburu eta diskoen azokaz haratago, euskalgintzaren eta euskal kulturaren bilgune delako, euskaldunen eta kulturazaleen ezinbesteko topalekua".

Sakanan bitan

Sakanatik bitan pasako da aurtengo Korrika. Gaur, ostiralean Iruñera sartu ondoren, gauerdian Berriozartik pasatuko da eta larunbat goizaldean, 1:57an pasako da Irurtzundik, Uitzu eta Leitzara bidean. Hurrengo larunbat goizaldean, martxoaren 28an, Sakana zeharkatuko du puntatik puntara. Etxauritik sartuko da Sakanara, Errotzera, goizaldeko 2:00tan. Irurtzun (2:21), Satrustegi (2:53), Lakun-

Korrika txikiak eta Korrika Kulturala

Korrikaren inguruan Korrika Kulturala eta Korrika txikiak antolatzen dira Sakana herri askotan. Dagoeneko martxan dira makina bat ekitaldi. Horien guztien berri Guaixeko agendan duzue.

IRURTZUN

Martxoak 20, ostirala
18:30ean Barazki gunean ITB umee-kin: pankarta, photo call, zumba saioa...
20:30ean Idoia Tapiaren kontzertua, Larrazpin.
22:00etan Afaria Larrazpin.
1:00etan Korrikalejira Larrazpitik gurutzera.
1:57an 19. Korrika.

LAKUNTZA

Martxoak 21, larunbata*
10:30ean Familiendako mendi buelta. Gosaria izanen da.
12:30ean Buruhandiak.
13:00etan Elai-Alai dantza taldea. Ondoren auzatea.
18:30ean Izenak izana, Euskal Herriko ipuin eta kondairak. Enekaritza ipuin kontalaria. Kultur etxeko goiko gelan.
*Ekintzan egin bitartean Korrikako materiala salgai izanen da.

ALTSASU Mintzodromoa

Estreinakoz Sakanan, ostegunean, 19:00etan, Mintzodromoa egingen da. Euskara plazara ateratzeko eta erabilera bulkatzeko elkargunea da Mintzodromoa. Helburua da jendea talde txoetan elkartzeko eta proposatutako gai bati buruz hizketzea. Denbora tartebatu ondoren, taldeak desegin eta berriak sortuko dira. Mihia errazago dantza egin dezan merienda goxoa eta musika iragarri dituzte. Gurasoei hurrekin joateko gonbitea egin diete, haiendako ginkana, margoak eta bestelakoak prest ditzutelako. Mintzodromoa Altsasuko Foru plazan izanen da, eguraldiak lagun-duko ez balu, Gure Etxea eraikinean.

Elaide.eus, harremanak euskaraz izateko sare soziala

Elaide, Saretik Plazara sare sozialak, euskaraz badakiten eta ikasten ari diren euskaldunak biltzen ditu, sarean nahiz plazan, euskara eta euskaraz bizitzeko beste aukera bat emanez

Euskaraz sortu den lehen sare soziala da www.elaide.eus. Zale-etasunak eta interesak partekatu daitezke bertan, planak egin, albisteak komentatu... Euskaraz dakitenei eta hizkuntza ikasten

ari direnei zuzenduta dago sare soziala. Elaideko kideak euskara ikasi edo landu nahi dutenen bidelagunak dira.

Sare sozial berrian euskaraz bizitzeko eta euskara lantzeko hainbat harreman nahiz baliabide aurkitu daitezke: taldean aritu nahi duenak txaterako eta interes partekatze gunea du; kontsultak edo proposamenak egin

daitezke; planak antolatzeko, bestelako beharrak asetzeko edo proiektuak egiteko.

Elaideren plataforma eraikia badago ere, osatzeko sasoian dago oraindik. Udazkenean aurkeztuko dute Euskara Zerbitzua duten Nafarroako hainbat toki entitatek, Sakanako Mankomunitatea barne. Toki erakundeak euskaltegiekin eta Mintzakide programarekin



elkarlanean aritu dira eta, orain, herritarrak eta ikasleak elkartu dira Elaideren jendartea eraiki-

tzen hasteko. www.elaide.eus-en sartu eta erabiltzen hasteko gonbitea luzatu dute.

2015 **FINALA** ELIZONDOKO PILOTALEKUAN
Martxoak 28, larunbata, 17:00etan

Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Sarrerak salgai: www.bertsozale.eus

Julio Soto, Xabier Terreros, Eneko Lazkoz, Aimar KARRIKA, Ander Fuentes "ITTURRI", Eneko Fernandez, Oskar Estanga, Julen Zelaieta

beleixe guaixe.eus



Raf Atxuri

Guraso. Aita-Ama.

Orain dela bi hilabete Argia astekariak azalera ekarri zuen gaia: "Errudun sentitzen diren amen belaunaldia. Bateko eta besteko kritikek itotako amak". Erreportaia luze eta mamitsuan egungo amatasun ereduaren inguruko hausnarketa eta iritziak plazaratzen ziren.

Belaunaldi bakarrean, oso urte gutxitan teknologien alorrean bezala familia ereduaren aldaketa nabarmena ezagutu dugu Europan, baina nago eredu berria oraino finkatu edo

ondugabea dela. Izan ere, familia antolamendu zaharra oso argi definitua zegoen, aitek etxetik kanpo egiten zuten lan eta sosak ekarri, amen lana etxe barruan gauzatzen zen eta eginkizun ugariaren artean haurren heziketa zen horietako bat. Eskema zurrin eta zehatza, denek zekiten zein betebeharrak zuten antolabide hartan.

Oso denbora gutxian eskema hau guztia irauli da goitik behera, teorikoki behintzat, eta biko-

teko bi kideengan omen datza etxeko lanen beren gain hartzea, haurren heziketa barne, baina beste hainbat gizarte-bilakaeratan bezalaxe "zaharra" ez da desagertu eta "berria" ere ez da bete-betean etorri.

Jendartea haurraren heziketaren garrantziaz jakitun da, teorikoki beti ere eta demagun hazkuntza naturala, sosegua, afektuak, emozioak, maitasuna, kalitatezko denbora eskaintzea etab. paratzen direla prozesuaren muinean. Demagun ere

bikotekide biek parekidetasunean parte hartu nahi dutela haurraren hazi eta hezibidean. Lan errealitateak bidea ematen du honetarako? Jendartearen presioak bidea ematen du haurra haz eta hezi dadin lehiakeriarik gabeko inguru batean? Ala emakumea hezitzaile nahiz langile "superwoman" a izatera kondenatu beharko dugu? Genero sistemaren desorekak desagertuko badira azken galdera honi erantzun beharko dugu egoki.

astekoa

barrutik kanpora

Wuuau!

Urtarrilaren 11beltzaren 30an, Guaixeren 494. alean, "Sakanan Nafar Gobernuaren ordua da" izenpean artikulua bat publikatu genuen eskualdeko 25 pertsonen sinadurapean. Artikulu hartan, Sakanan azken urtetan landutako garapen prozesuaren berri ematen genuen eta etorkizunean horrela jarraitu ahal izateko, Nafarroako Gobernuaren aldetik eman beharreko pausuak azaltzen genituen.

Artikulu hura, aste pare bat lehenago publiko egin zen akordio bat sustatzeko idatzi zen. Urtarrilaren 11beltzaren 13an, Nafarroako Parlamentuak guztizko adostasunarekin Sakanako Plan Estrategikoari bere babesa azalera zion. Honekin, alde bate-tik, Sakanan behar dituen baliabideak lortzeko erraztasuna ematea eskatzen zaio eta beste alde batetik, baliabide hauek implementatzeko orduan, Nafarroako Gobernuaren eragile aktibo bat izatea.

Egunak pasa, asteak pasa, hila-beteak pasa dira eta ez dugu erantzun positiborik jaso. Hobeto esanda, ez dugu erantzunik jaso! Atzera egin ez gero, Abian Plataformak martxan jarri zuen Sakanako Krisi Mahaia datorkigu gogora. Bertan, adostasun maila handiarekin 6 pausu adostu ziren. Hiru pausu Sakanako eragileen eskuetan zeuden. Bete dira! Beste hiru pausu aldiz, Nafarroako Gobernuaren eskumene-tan. Erantzuna hutsaren hurrengo! WUAU!

Hauek ahal dira gure liderrak? Gure gobernariak? Gure ordezkariak? WUAU!

Horrelako lidergo motarekin Foru Erkidego honen etorkizuna kili-kolo egon daiteke. Sakanaren etorkizuna aldiz, ez! Gurea, GURE eskutan baitago. Eta horrela izateko, antolatuta eta sarean lan egiten jarraitu behar dugu. Sarea baita, gure indarrak gehitzeko metodoa.

Azkenaldian, eskualde mailan aukera berriak zabaltzen ari gara. Gure ustetan, guztiok dugu gure lekua eta aukera, baina zuk, zurea aurkitu behar duzu. Proposamen berriren bat egin nahi baduzu sakantzensarea@gmail.com helbidera idatzi dezakezu.

WUAU!

Sakantzen Sarea

hara zer dien

Hitzen indarra

Ba al zenekien hitzak ez dituela haizeak eramaten? Are gehiago, hitzek indar handia dute, bere aztarna uzten dute, eta eragin baikorra edota negatiboa dute.

Zain itzazu zure hitzak, haiek aztarna bat utziko baitute beti. Askotan entzuten dugu telebistan, Facebook-en, irrastian edota prentsan irakurtzen, pertsonen kiko ieritzi negatiboak "Etorkinak guri lana kentzera datoz, diru-laguntza denak jasotzen dituzte" ..."

Bainapentsatual duzu inoizzen-bat edo norainoko kaltea egin dezaketen gure hitzek? Hitzek pertsona zauritu edo senda deza-

kete. Horrexegatik, gomendagarria da hitz egin aurretik, esan behar dugun horretan pentsatzea, besteen ohore ona ez zartazearren. Hortaz, zaindu lehenik eta behin pentsamenduak, hauek hitz bihurtzen baitira. Eta zaindu hitzak hauek destinoa markatzen baitute, bai hitz egiten dugunona baita, nola besteena ere.

Behin gure ahotik aterata direlarik, hitzek ez dute atzera bueltarik.

Gure barne munduaren adierazle dira. Gure hizkera zaintzen badugu, gure barne mundua ere zainduko dugu.

Iraintzen duten hitzek Hitza

irainkorrek ez dute sekula ezer eraikitzaile sortzen. Inoiz.

Adierazpen erasotzaileekin pertsonen mina ematen diegu, zauriak, erresistentzia erremina eta mina sortuz.

Baina gure ahotik ateratzen duguna noizbait gurera etorriko da bueltan.

Hitzak biziak dira! Salbatu ("ulertzen dut zure egoera") edo kondena dezakete gizakia ("ijitok eta errumaniarrak lapurrak!") dezakete gizakia.

Hitza egokienak zama arin dezakete, hitza alaiak zama argitu eta hitza egokienak gauzak, egoerak leundu.

Esaten ditugun hitzak politikak badira, entzungo ditugun ohihartzunak ere halakoxeak izango dira.

Gure esku dago hitzak onerako edo txarrerako erabilteza. Hizkeraz zainduz, gure barne egoera garbitzen dugu. Eta hitz horien esku dago askotan zoriona edo zoritxarra.

Hortaz, hitz egin dezagun beti, bai gure ariman nola besteenean bakea geratuko den moduan.

Hitzak haizeak eramaten ez dituelako..... Zain ditzagun gure hitzak.

Inmigrazio Zerbitzua

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

gutunak LABURTU egingen dira. Gutunetan izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldiakariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldiakariaren adierazitako esanetan eta iritzi

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Esker onez

Saioa Alegria Lahidalga. Lakuntzako Euskal Herriaren Euskaraz-en izenean

Lau hitz hauekin Sakanako Euskaraz Bizi Egun txikian parte hartu zenuten eta hurbildu zine-

ten euskaltzale guztiei gure eskerririk beroenak helarazi nahi dizkizuegu. Zuek gabe egun hau ezin izango zelako ospatu. Oso pozgarria da sakandarrok Euskararen alde egotetik Euskararen alde egitera pasa nahi dugula ikustea.

Eguna giro ederrean ospatu genuen eta hiru hilabeteko lanaren uzta jaso genuela esan daiteke. Hala ere, sentitzen dugu akatsik egin badugu. Ahalik eta hoberen egiten saiatu gara. Gure eskerririk beroenak helarazi nahi dizkiegu Lakuntzako erraldoi

eta buruhandien konpartsari, Lakuntzako fanfarreari, Lakuntzako musikari eta musika teknikariei, Lakuntzako tabernei, Udalariei eta Altsasuko eta Etxarriko EHEko kideei.

Mila esker eta euskaraz bizi!!!

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.net
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Garazi Garzia
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRATIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.net
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hezkuntza Politikako Salburordetza

>> Altsasu



Guaixeko Komunitateko kide nola egin azaltzen.

Guaixe.eus altsasuartzan

Astlehenean egindako saioan dozena erdi erakunde altsasuarretako bederatziz ordezkariek elkarrekin ziren Iortia kultur gunean. www.guaixe.eus web orrian sakandarren parte hartzeari zabalik dagoen leihoa, Komunitatea, nola erabili ezagutu zuten. Eta aurrerantzean beraiek ere Altsasuz sarean euskaraz ariko dira.

Sakanako euskarazko plaza digitala

Horixe izan nahi du www.guaixe.eus web orriako Komunitatea atal. Bierrik fundazioak sustatuta, edozein sakandarren eta ibarreko

erakunderen parte hartzeari zabalik dago komunitatea. Komunitateko profilerako propio sor daitezke edukiak, edo aurretik martxan dagoen blog edo sare sozial batekin lotu daitezke Guaixe.eus-eko Komunitatea. Beti ere, euskaraz.

Saioak nahieran:

Bakarren batek bere herrian Guaixe.eus-en Komunitateari buruzko saioa hartzen interesa balu, bierrik@guaixe.net helbidera idatzi beharko luke.

SAKANA

Mendialdearen garapen lokaleko estrategia parte-hartzailea

Cederna-Garalurrek 2014-2020 aldirako garapen lokaleko estrategia definitzen ari da eta astearterako, 18:00etatik 21:00etara, sakandarrak bilerara deitu ditu Arbizuko Utzugane zentzora

Parte-hartzearen bidez Nafarroako Mendialderako garapen lokaleko estrategia zehazten ari da Cederna-Garalurrek. Garapenak nondik nora joan behar duen zehazteko garaian Cederna-Garalurrek Mendialdeko eskualdeetan lurralde-mahaiak eta mahai sektorialeak sortzen ari da. Mahai horien bueltan Nafarroako Mendiaren entitate publikoek, pribatuek eta sozialek parte hartzea nahi du Garalurrek.

Osatzen ari diren agirian ahalik eta ideia eta lurralde proiektu gehien jaso nahi ditu Garalurrek, "Nafarroako Mendia lurralde lehiakorragoa, berritzaileagoa, ekonomikoki eta ingurumenerako iraunkorragoa eta berdintasun printzipioekin adeitsuagoa izatea lortzeko". Horregatik, astearterako bilerara joatera gonbidatu ditu sakandarrak, estrategia



Cederna Garalurrek aurretik ekintzaileendako antolatutako jardunaldia.

"lurraldekoa eta lurraldearendako" izan dadin. Sakandarren ekarpenen garrantzia nabarmendu dute Garalurretik. Eta iragarri dute astearterako bilera parte-hartzailea izanen dela.

Orain artekoa

Cederna-Garalurrek diagnosi-proposamen bat eginda du eta hori izanen da astearterako bileraren oinarria. Han landuko diren ekintza eta proiektuak jasotzen dira. Hura osatzeko, besteak beste, kontuan izan dute Sakanako Plan Estrate-

gikoa. Eztabaidarako agiriak bost lan esparru jaso ditu: lehen sektorea eta energia; turismoa, merkataritza, zerbitzuak eta artisautza; industria eta enpresei zerbitzuak; ondarea (kultura, arkitektura, natura...) eta, azkenik, bizi kalitatea (IKT, komunikazioak, zerbitzuak, enplegua).

Mendialdeko garapen lokaleko estrategia definitu ondoren, Cederna-Garalurrek agiria Europako funtsekin hornituta dagoen Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza deialdira aurkeztuko du.

SAKANA



Bidelagun elkarteak Junkera omendu zuen Brun forjariaren burdindegian.

Abenduan turismo arloan lan egiten duten 17 eragile izatek 33 izatera pasa dira hiru hilabetetan

Sakanan dauden turismo eragileek ibarrean bertan dituzten

baliabideak bertatik bertara ezagutzeko erronda egiten ari dira urte hasiera. Altsasuko Basoko Mari artisau gunearen ondoren, atzo Izurdiagako Brun, forjariaren

Bidelagun elkarteak handituz doa

interpretazio zentroaren txanda izan zen. Bidelagun elkartearen dauden landetxe, jatetxe, artisautza edota turismo aktiboko 35 bat ordezkariek elkarrekin Brun darren zentroan.

Bidelagun elkartearen buru Alfonso Nuin Cartujok esan zigunez, bisita erronda horren asmoa da "turismo eragileek Sakanak bisitariei eskaintzen dizkien esperientziak bertatik bertara ezagutzeko, gero bisitariei aholkua eman ahal izateko". Forjariaren interpretazio zentroak "dudarik gabe, bisita merezi du" ziurtatu zigun: "gaur egun ez dago forjaririk, ez

da ezagutzen. Gainera, Brundarrek zazpi belaunaldi daramate honetan".

Nuinek jakinarazi digunez, aurki Arruazuko Albi gaztandegia eta Urdaingo Errotain zalditegia bisitatzeko asmoa dute. Landetxeei dagokienez, zubi honetarako eta Aste Santurako aurreikuspenak onak direla aurreratu zigun.

Kepa Junkera

Eduardo Brunek azaldu digunez, urtero pertsonaia ospetsu bat gonbidatzen dute forjara, omentzeko. Barricadako Alfredo Piedrafita eta Jon Maia bertsolariak izan

dira aurretik. Aurten Kepa Junkerak bisitatu ditu. Euskal musikaren egindako ibilbideagatik omendu zuten. Junkerak Brundarrek egindako trikiti baten irudi txikia jaso zuen oroigarri gisa. Musikariak forjariaren trikitiaren hauspoaren arteko parekotasuna egin zuen. Eta forjariaren ingude gainean borrekin lan egiten zutela, Junkerarekin batera, Aldapeko pieza jo zuten.

Forjariaren & Junkeraren bideoa

<http://guaixe.eus/izurdiaga/>
1426692796524

URTEKO KOTXERIK ONENA, EZ DA KOTXE BAT

IRAULTZA BAT DA

12.100€*^{-GATIK}

- > ESKUZKO KLIMATIZADOREA
- > UKIPEN-PANTAILA 7" (BLUETOOTH + USB + AUX)
- > 6 AIRBAG
- > ZAPAIRAKO BARRA



KONSUMO MISTOA (100KM/L) / CO2 EMISIOA (G/KM): CITROËN C4 CACTUS: 3,1 - 4,7/82 - 107



CITROËN
C4 CACTUS,
URTEKO KOTXEA
ESPAINIAN.



*C4 Cactus pureTech 82 Feel Fine salmenta prezioaren arabera: 12.100€ (zergak, garraioak, eskaintza eta Pive plana barne), bere izenean zegoen kotxea ekartzeko bezero partikularrendako eskaintza, 6000€ko gutxieneko finantziario eskatzen dutenak Banque PSA Financien bidez 36 hilabeteko iraupena izango dutenak. Hilabete osorako eskaintza, parte-hartzaile, Penintsula eta Bale-arietan. Finantziatuko ez duen bezeroarentzako prezioa: 13.330€. Ikusgai dagoen modelo: C4 Cactus pureTech 82 Feel Fine.



CRÉATIVE TECHNOLOGIE

>> Altsasu

Herri galdeketako galderaren bila

Domekan, 18:00etan Altsasuko Burunda pilotalekuan batzarra egingen da, 29ko herri galdeketako galdera zehaztuko da bertan

Altsasuko Festen Batzordeak altsasuarrek batzarrerara deitu ditu etziko. Zortzi urtean behin gertatzen denez, aurten Altsasuko festak domekatik ostegunera (irailaren 13tik 17ra) izanen dira. Festen egitaraua antolatzeaz arduratzen den batzordeak aste bukaera hartzeko data aldaketa eskatu zion udalari. Udaltzarak festak noiz hasi herri galdeketa lotesle bidez erabakitzea onartu zuen. Martxoaren 29an izanen da kontsulta. Altsasuarrei egingen zaien galdera domekako batzarraren zehaztuko da. Horregatik, etziko batzarraren parte hartzerara deitu dituzte altsasuarrek.

Batzarrak bi zati izanen ditu.



Aurrenekoan eragileek data aldatu edo mantentzearen aldeko argudioak emanen dituzte. Horiek guztiak entzun eta gero galdera zehazteko garaia izanen da. Proposamenen artean egokiena erabaki eta udalari jakinaraziko zaio.

Aldeko jarrera

Festa Batzordeak data aldaketa "ezinbestekotzat" jotzen du. Festak asteburuan hartzea nahi du.

Batzordekideek diotenez, "herri-tik herriarendako festetan sinesten dugunez, zaila litzateke soilik astez diren festak antolatzea". Aukera horrek adin tarte guztien parte hartzea murriztea eta arrakasta txikitzea ekarriko lukeela argudiatu dute; "ikastetxeek egutegia osatzeko, jai egun horiek guztiak nekez hartuko litzukete. Eta Altsasutik kanpo lan edo ikasten duten biztanleek festez goza-

tzeko aukera gutxiago litzukete".

Antolakuntza aldetik dauden arazoak ere nabarmendu dituzte batzordekideek: "egitaraua osatzeko zailtasunak izanen genituzke, iraila erdialdean astez guregana etor daitezkeenak gutxi baitira. Horrek programazioa pobretzea ekarriko luke". Aldi berean, "azken urteetan egitarauan garrantzia handia hartu dute herriko talde eta elkarteek, aldaketarik ez zailtasun handiak izanen litzukete astegunetan euren lana eskaintzeko".

Data aldaketaren alde agertu dira

Haize Berriak banda, gaztetxea, Zubi-ondo elkarteak, Peñak, Burunda txirindulari taldea, Trasteando, Zubi-ondo abesbatza, EHBildu, Geroa Bai, IU, PSN eta UPN.

>> Olatzagutia

Porlandegitik kaleratutako ELAko kideak lanean

Nafarroako Auzitegi Gorenak Cementos Portland Valderrivas bereizkeria sindikalarengatik zigortu zuen eta ELAko afiliatuak berronartzera behartu du

Madriren UGTK eta CCOOK negoziatutako Enplegu Erregulazio Espediente (EEE) baten ondorioz, 2013an Olatzagutiko porlandegitik 9 langile kaleratu zituzten, haietako sei ELAko kideak. Sindikatuak epaitegira jo zuen eta arrazoia eman dio: ez zien arrazoi ekonomiko edo antolakuntzakoengatik kaleratuak izan, baizik eta bere esangura sindikalagatik. ELAko 5 kide lanera bueltatu dira, "kaleratze traumatikoaren ondoren enpresa utzi du besteak".

Porlandegiko ELAko ordezkari Ruben Garciakesan duenez, "argi utzi du ELAren ibilbidea errepresaliatu nahi zela". ELAtik "sindikalismo autonomo eta erreibindikatzailaren egunerokotasuna" aldarrikatu dute. Hauteskunde sindikaletan porlandegian ordezkari bat gehiago lortu dutela gogor ekarri du Garciak, "eta boto bategatik ez genuen bosgarrena lortu bulegoetan". Sakanako ELAko buru Gorka Viergek, porlandegiko afiliatu eta gainontzeko militanten konpromisoa nabarmendu zuen: "hain zaila den egungo egoeran, azken finean, makina bat enpresatan urte askotan lortutako lan baldintza duinekin bukatzea eragozteko azken oztopo militantek dira".

Lekunberri

Sindikatuak Nafarroako koordinatzaile Mitxel Lakuntzakesan zuen epaia EEE negoziatu zuen Nafarroako UGTko buru Javier Lekunberri "askatasun sindikalaren kontrako espediente sinatzeaz eta koordinatzeaz arduratu zen". Lakuntzak gogor ekarri zuenez, "zuzendaritzak, 2013tik, enpresa batzordeari ez dio ordu sindikalaren inguruko informaziorik eman. Beraz, ez dago modurik jakiteko nondik jasotzen duen soldata Lekunberri, ordu sindikalak ez badira ELAren sindikalismoaren kontra izandako jarrerarengatik izan litekeen argitzea eskatu diogu bai enpresari eta Lekunberri". Sindikatuak CEN patronalari dei egin zion "isil egoteari utzi, publikoki bere konpromisoa agertu dezan eta lan egin bere bazkideen artean funtsezko eskubideak errespetatu ditzaten".

>> Bakaiku

Gaztainondo berriak basoan

Domeka goizean 20 bat bakaikuarrek hartu zuten beheko basoko bidea. Haur, gazte eta heldu, guztiek langintza bakarria zuten: 30 gaztainondo landatzea. Gaztainondoen lan taldearen hurrengo egitekoa ale gazte horien inguruko bazterrek garbi mantentzea izanen da.



Landaketa eta beste egin zituzten domekan Bakaikuko basoan. UTZITAKOIA

>> Sakana



Presoen eskubideen aldeko atxikimendu bila

Sarek deituta apirilaren 18an Etxarri Aranatzan egingen den manifestaziorako atxikimendua emateko dinamika abiarazi du

Sakanako Sare dinamika herritarrak heldu den hilerako deitu duen mobilizazioarekin hiru aldarrikapen egin nahi ditu. Batetik, "euskarako preso politikoei eta haien senideei eta lagunei aplikatzen zaien dispersio politika krudelarekin amaitzea". Bestetik, "gaixo dauden preso eta iheslarien berehalako etxeratzea". Eta, azkenik, "giza eskubideak, konponbidea, bakea". Manifestazio horri atxikimendua eman nahi dioten Sakanako eragile eta norbanakoek sakanasare@gmail.com e-posta helbidera zuzendu daitezke. Sakanako Saretik jakinarazi digutenez, dagoeneko hainbat dira atxikimendua azaldu dutenak.

>> Bakaiku / Iturmendi / Urdiain

Burunda ekialdeko Gazte Eguna



Bihar, 14:30etik aurrera, Bakaikun ospatuko da

Bakaiku, Iturmendi eta Urdiaingo gazte asanbladak elkartu eta biharko Gazte Eguna antolatuko dute. Burunda ekialdeko hiru gaz-

te asanbladek haien kideen arteko erlazioak sendotzeko asmoz antolatu dute ospakizuna, bazkariarekin hasi eta kontzertuekin despidituko dena. Egun guztian zehar elkarteak eta haren atzeko

Egitaraua

14:30ean Bazkaria gaztetxean.
18:00etan Gazte asanbladen arteko jolasak.
20:00etan Kontzentrazioa eta auzatea. Ondoren triki-poteoa.
22:00etan Bokata da.
23:00etan Kontzertuak: D-Pintxos, Bagauda eta Guri 5.

aldean dagoen zuloa zabalik egonen dira.

Amaya
Okindegi-gozotegia

ARAIA 945 314 572

ALTSASU

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185
- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...



ALTSASU



OLAZTI

948 468 755



ETXARRI

948 461 660

» Iturmendi

Eskolarako xenda

Haurren segurtasunean pentsatzen, udalak aurtengorako egitea aurreikusi duen lanetako bat da

Iturmendiko Udalak aurturteko 287.393,69 euroko aurrekontua izanen du. Victoriano Gabirondo alkateak jakinarazi digunez, "gastu finkoak ordaindu eta gutxi gehiagorako" aurrekontuak dira aurtengoak. Inbertsioen atalean diru-sail handiena Udalak Konsistorial kalean biltegi gisa erabiltzen duen etxeko teilatua konpontzera bideratuko du (gaztetxearen alda-

meneneko etxea).

Lan horietatik dirurik soberan geldituko balitz, medikuaren etxeko teilatuaren erlanean bateginen luke Iturmendiko Udalak. Horrekin batera, Gabirondokazaldu digunez, elizazpitik eskola berrira joateko oinezkoendako xenda bat egokituko du Udalak. "Hirigintza planean 6 metroko kale bat aurreikusten da, baina orain xenda eginen dugu. Ikasleak errepidetik oinez joaten dira eta arriskua kendu nahi dugu",



Eskolara joateko xenda etxearen eta frontoiaren artean abiatuko da.

zehaztu du alkateak. Azkenik, basoan siatsa dagoen tokian ubide pare bat eginen ditu Udalak.

Alkateak esan digunez, eskolako lanak beste egitasmo batzuk

hurrengo legegintzaldikoei pasatzera bultzatu ditu. "Iturmendiarraren aspaldiko nahia da mediku kontsultategia herri erdian izatea. Eskola zaharraren erdia gelditu-

ko da horretarako, baina ez gara Osasunbidearekin hizketatu". Egitzekoen zerrendan gelditzen dena ere medikuaren etxea zenarekin zer egin erabakitzea da.

SAKANA

Otsailean 53 langabe gutxiago

1.557 sakandar ziren otsaila akaberan lan bila zebiltzanak, pasaden urteko otsailean baino 232 gutxiago. Nafarroako populazioaren %3,19 izanik, langabeen %3,17 dira sakandarrak (0,08ko jaitsiera)

Abendu akaberan 82 langabe gehiago zenbatu zituzten Nafarroako Enplegu Zerbitzuan. Abenduan langabeziak gora egindakoa bi hilabetetan berdindu da. Izan ere, ilbeltzean 29k opatu zuten

lana eta otsailean beste 53k. Otsaileko jaitsiera %3,29koa izan da. Emakumezkoak dira langabetu gehienak, 828 edo %53,18 (aurreko hilean baino 26 gutxiago). Gizonezko langabeak, berriz, 729 edo %46,82 dira (27 gutxiago).

Adina

Adin tarteari dagokionez, 45 urte edo gehiago dutenen adin tartea

da handiena: 721 edo %46,31 (23 gutxiago). 25 eta 44 urte bitarteko langabeak 691 ziren, %44,38 (27 gutxiago). 25 urte baino gutxiagoko langabetuak 145 ziren, %9,31 (3 gutxiago).

Sektoreka

Langabezian dauden sakandar gehienek, 925ek edo %59,41ek, zerbitzuen sektorean lan egin nahiko lukete (30 gutxiago). Industriarako lan eskatzaileak 397 edo %25,5 ziren (25 gutxiago). Eraikuntza eta lehensetorean aritzeko eskerak bere horretan mantendu dira hilabete batetik bestera: 110 (%7,06)



eta 39 (%2,5). Azkenik, aurretik lanik egin ez dutenen kopuruak gora egin zuen eta otsaila akaberan 86 ziren, %5,52 (2 gehiago).

Kontratuak alde agertu dira

Aldi baterako kontratazioa izan zen nagusi otsailean: %95,56 (517 kontratu, 150 gutxiago). Sinatutako kontratuetatik hasieratik mugagabeak %2,59 izan ziren ilbeltzean (14, 16 gutxiago). Otsaileko mugagabe bihurtutako kontratuak %1,85 izan ziren (10, 1 gutxiago). Nafarroan otsailean sinatu ziren 21.794 kontratuetatik %2,48 sakandarrak ziren.

E S K A I N T Z A K

1. IÑAKI OINETAKOAK. ETXARRI ARANATZ
40€tik gorako gastuarekin %10eko deskontu zuzena. Epea: apirilak 20.

2. TU TIENDA ESPECIAL. ALTSASU
%10eko deskontua, dauden beherapenekin bateragarri. Epea: martxoa.

3. LA CIGÜEÑA. ALTSASU. %10eko deskontua Kotxeetako aulki eta aulki arinetan. Epea martxoa eta apirila.

4. GOROSTI. ALTSASU
%30, %40, %50eko beherapenak.

5. COMERCIAL ETXARRI. ETXARRI ARANATZ
Hurrengo atsedenerako ekipotako erosketan %10eko deskontua. Epea: martxoaren 20tik maiatzak 30era.

6. OPTIKA SAKANA. ALTSASU
2x1 graduatutako betaurrekoetan baita eguzkitakoetan ere. Audifonoetan %15a. Epea: apirilak 30.

7. ARKATZ LIBURUDENDA. ALTSASU
Irakurgaietan eta gidetan %10eko deskontua. Epea: apirilean zehar.

8. FRUITIS JANARIDENDA. IRURTZUN
Fruta eta barazkietan %15eko deskontua. Epea: apirilak 20.

SAKANAKO DENDARI, OSTALARI ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

>> Altsasu



Altsasu Memoria taldeko kideak Iguzkizaren semearekin batera.

Memoriari isuna

Emilio Iguzkizaren omenaldia prestakuntzan ari zela Guardia Zibilak identifikatutako gazteetako batek 300 euroko isuna jaso du

Joan den urtean 80 urte bete ziren Guardia Zibilaren tiroz Emilio Iguzkiza hil egin zela. Urteurrenaren harira, lastailaren 12an, Altsasu Memoria eragileak omenaldi ekitaldia antolatuzuen eta oroigarri bat mustu zuen Gartzia Ximenez kalean. Eragiletik herenegun jakinarazi zuten, ekitaldia hasi

baino ordu erdi lehenago Guardia Zibilak agertu eta baimenik gabe hura bertan behera uzteko esan zien. Antolatzaileek udalaren agindua erakutsi zieten eta aurrera jarraituzuten ekitaldiarekin. Hainbat pertsona identifikatu zituzten eta haietako batek berriki isuna jaso du.

Altsasu Memoriak jakinarazi duenez, ekitaldia kalez jantzitako guardia zibilek zaindu zuten. Era-

Liburu aurkezpena

«Octubre de 1934 en Euskal Herria» liburua idatzi dute R. Garaik, J. Gutik eta J. Chuecak. Hiru idazleak apirilaren 10ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean liburuaren aurkezpena egingen dute. Urte eta hilabete hartan hil zuten Iguzkiza. Hizlariak Altsasun eta Olatzagutian izandako langile borrokaz eta izandako errepresioaz hizketatuko dira.

gileak Iguzkizaren omenezko oroigarria kentzeko saiakerak salatu ditu. “Emilioren erailketa inpunitate osoz egin zuten eta inpunitate berdinarekin jarraitzen dute herri oroimenaren kontra” salatu du Altsasu Memoriak, “benetako herri memoria lantzen jarraitzeko konpromisoa” berretsiz.

Ekitaldi berria

Eragileak jakinarazi du garagarriaren 13an herri oroimenaren bilketaren bigarren fasea aurkeztuko duela. 1950. eta 1992. urteen artean gertatutakoak jasoko dituzte: Fasako greba, Altsasuko ikastola, Gure Etxea, Franco Altsasun, Ikuurrinaren jazarpena, estatu kolpea, Zen plana, gerra zikina, intsumisioa... “Argi dugu Altsasuko herri memoria auzolanean jaso behar dela, dinamikoa izan behar dela. Horregatik, deia luzatzen dugugai horren inguruan interesa duen orori gurera etorri eta lanean has-teko. Guztion ekarpena ezinbestekoa da”. Altsasuarrei edozein bizi-pen, testigantza, bideo, agiri eta bestelakoak emateko eskatu diete. Haiak artxiboa osatu eta txukundu eta udal liburutegian uzteko asmoa dutela jakinarazi dute.

>> Sakana

Hualde Geroa Bairen parlamenturako zerrendan

Geroa Bairen kontseilu nagusiak koalizioak Nafarroako Parlamentuko hauteskundeetara aurkeztuko duen zerrenda berrestea falta da.



Baina haren buru Uxue Barkos izan dela ziurra da. Unai Hualde altsasuarra zerrendan laugarren postuan dago, berresteko faltan, esan bezala. Hualde, dagoeneko lehendakari zarako hautagaitzan Barkos laguntzen duen zortzikoteko kide da.

>>

EHBildu ibarreko programa zehaztera

Larunbatean, 9:30etik 13:00etara, Etxarri Aranazko kultur etxean

Koalizioak Sakanako herri programa egiteko jardunaldia antolatu du biharko. Horretarako lehenik lege-gintzaldiko balantzea egin eta hurrengorako arlokako lan ildo eta proposamenak aztertuko dituzte. Lan taldeek egungo zerbitzuak, toki garapena, azpiegiturak eta mankomunitatearen izaera-antolaketa aztertuko dituzte. Legealdi berria baino epe luzeagoa ere izan dute kontuan, “ikus-puntutik eremuz eremu eta modu orokorrean landu beharreko norabidearen inguruko gogoetari” ekinen diote. Azken horrek “hurrengo hilabete eta urteetan jarraipena eta garapena izan dute”. EHBilduk sakan-darrak biharko jardunaldietara gonbidatu ditu.

>> Altsasu

EHBilduk 224 ekarpen jaso ditu

Pasa den astean Altsasu 2020 topaketa irekiak antolatu zituen EHBilduk. Haien balorazio positiboa egin du koalizioak. 11 gairen inguruan hausnartu eta ekintzak proposatu zituzten. 80 herritarrek parte hartu zuten eta haien parte hartzea eta ekarpenak eskertu ditu koalizioak. Ekarpene gehienak, 50, enplegua eta garapen arloan izan ziren. Etxebizitza eta hirigintza (40), gizarte zerbitzu eta osasuna (26), hezkuntza (22) eta euskara (15) arloetan ere ekarpen asko egin zituzten. EHBildutik jakinarazi dute ekarpen guztiak auki www.altsasu.ehbildu.eus web gunean jarriko dituztela. Aldi berean, herriko eragile, kolektibo eta elkartei helaraziko diete, haien ikuspuntuak jasotzeko, eta nahi izanez gero proposamenak egin ditzaten. Herri-tarrek euren EHBildurendako proposamenak altsasu2020@gmail.com helbidean egin ditzakete. Ekarpene jasotzeko astelehenerako herri bil-gunea ere iragarri dute.

SAKANA

Irurita eta Aixita gazteluez gehiago

Iñaki Sagredok “Navarra, Castillos que defendieron el Reino. Tomo V. Nuestra historia, nuestras gentes” liburua publikatu du

Aspaldiko ezaguna dugu Iñaki Sagredo Garde. Ikertzaile nafarrak makina bat urte daramatza Nafarroako erresuma defendatu zuten gazteluak zeintzuk izan ziren, non zeuden eta egun duten egoeraren berri emanez. Gaztelu guztien kokapena egin du mapa batean, airetik argazkiak atera dizkie orduko gazteluei edo gazteluak zeuden tokiei eta garai hartako Nafarroako defentsa ikertzeko eta zabaltzeko lanetan buru-belarri jarraitzen du.

Beraren lana oinarri hartuta, Nafarroako erreinua defendatzeko erresuman barna zeuden 118 gazteluetan oroigarriak jartzen ari da Nafarroa Bizirik fundazioa, tartean Sakanakoetan.

Sakanako defentsa eta gazteluak

Sagredoren lanaren arabera *–Navarra. Castillos que defendieron el Reino* izenburupean 5 liburu argitaratu ditu, azkena aurkeztu berria, beste hainbat lanekin batera, Sakanako defentsaren oinarria gazteluak ziren. Sakanako defentsa sistema ondoko gazteluek osatzen zuten: Ziordiko gaztelua, Urdiaingo Sarabeko Irurita, Etxarri Aranazko dorrea, Uharte Arakilgoa, Etxeberri-Irurtzungo Bi Aizpeko Aixita eta Arakilgo Orarregi, Gaztelu gainean. Gipuzkoako Ataun eta Ausa gazteluak ere Sakanako defentsa-



Aixita gazteluko oroigarria jartzen. Behean, jentilen leihoa, Iruritako gazteluan.

korridoreko parte ziren. Hortaz aparte, hainbat herri gotortuta zeuden, Etxarri Aranatzeta Uharte Arakil esaterako. Olaztiko eta Uharte Arakilgo elizak ere gotortu zituzten. Iñaki Sagredok uste du Aralarko San Migelen gaztelurik ez, baina zaintza guneren bat egon behar zuela.

Gazteluen atzean zeuden pertsonak

Berriki, liburu berria aurkeztu du Sagredok: *Navarra, Castillos que*

defendieron el Reino. Tomo V. Nuestra historia, nuestras gentes. Garaño, Aitzorrotz, Azkar, Orzorroz, Zaitegi eta Sakanako Irurita eta Aixitan egindako lan arkeologikoa aintzat hartu ditu Nafarroako defentsa sistemen inguruko azterketa osatzeko, eta, hortaz aparte, Nafarroako gazteluak defendatu zituzten pertsonen bizipenak eta historiak ekarri ditu. Horretarako, Comptoseko Artxibo Orokorreko dokumentuak aztertzen lan handia egin du ikertzaileak. “Izen-

Irurita eta Aixita

Urdiaingo Saraben eta Arakil-Irurtzunen kokatzen ziren gazteluetan arkeologia lanak egingen jarraitzeko asmoa daukate.

abizenak dituzten pertsonak dira, Erdi Aroko garaiko bizipenak dituztenak, Nafarroako defentsan lan egin zutenak, eta, askok, Nafarroaren alde bizia emanzutenak. Euren bizipenen berri ematearekin batera, liburuan argazkiak, planoak eta gaztelu eta gotorlekuak kokatuta dauden mapak topatu daitezke. Gure historia sortu zuten omenaldi bat izan nahi du liburu honek” adierazi du Iñaki Sagredok. “Liburu honen irabaziaz gure gazteluak izan zirenak berreskuratzeko egiten ari garen lanetara bideratuko dira, tartean Irurita eta Aixita gazteluen errekupeziara” gaineratu du idazleak.

Xabino Garmendia Iriarte

Aberasgarria oso zure bidea konpartitzea, mingarria, ordea, agur esatea, zure txistuaren soinuaz egongo zara gurean.

Goizederren koadrila



Xabino

Musika izendu da zu bide laune eta makiña bat doiñu jo ttuzu txistu eta gaitakin herriyandako. Hale de, gu beitten geldittuko da zu musikan doiñube. Eskerrik asko

Zu kuadrille

Etxarri Aranatz, 2015eko martxoaren 20an



Sabino Garmendia Iriarte

Zurekin izandako solasaldiak beti gure oroimenean iraungo dute. Ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Poteoko lagunak



Sabino Garmendia Iriarte

Eskerrik asko etxarriar guztien izenean, gure kaleak txistuz eta gaitaz alaitzeagatik.



Etxarri Aranatzko Udala



Sabino Garmendia Iriarte

Andra Mari Ikastolako Gurasoa

Ametz bat baldin bada betiko bizia amets ederrena da, amets da guztia

Andra Mari Ikastolako guraso, langile eta ikasleak



Sabino Garmendia Iriarte

Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi, kantuz igortzen ditut nik penak ihesi; kantuz izan dudana zerbait irabazi, kantuz gostura ditut guziak iretsi; kantuz ez duta beraz hitzea merezi?

Andra Mari Ikastolako Lehen Hezkuntza



Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

GUAIXE KOMUNIKAZIOA

948 564 275
Foru plaza 23-1
Altsasu
argi@guaixe.net

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarrian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€.
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.
Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Etxebizitzak errentan eman

ALOKAIRUA

Pisua alokatzen da Lakuntzan. Gela bakarrek apartamentua, erdigunean. Altzariak eta bitzetako beharrezkoak diren elementu guztiekin jantzita. 300 € hilabeteko errenta. Interesatuak 678 83 03 71 telefonora deitu.

OPATUTAKOAK

Giltza sorta opatu zen Altsasun marsuaren lehendabiziko astean. Galdu duena joan dadila Altsasuko udaltzainengana.

IKASTAROAK

Plaza libreak zumba ikastaroan!!. Zumba eragin nahi baduzu apuntatu zaituz Altsasuko Intxostiapunta Gaztegunean izango den zumba ikastarora, astearte eta ostiralean, 18:00etatik 19:00ak arte. Prezioa 25 €. Apuntatu zaituz!! Informazio gehiago 948 56 47 85.

LEHIAKETAK

Argazki lehiaketa Altsasuko Gure Esku Dagok antolatuta. 2014ko giza katean aterako argazkiak inprimatu eta Biltokin, Gautxorin edo Txalaparta tabernetan aurkeztu behar dira

martxoaren 29a baino lehen.

Haur literaturako Mikel Zarate lehiaketa.

Lezamako udalak eta Elkar argitaletxeak, 6 eta 12 urte bitarteko haurrendako irakurgai berriak sortu eta idazleen lana bultzatzeko asmoz antolatu dute lehiaketa. Lanak hartzeko azken eguna apirilaren 30 a izanen da. Argibideak deitzaileen web orrietan.

Oharrak

Gazte Txokoa Iruñeko Rokodromora.

Martxoaren 28an. Prezioa 11 € autobusa barne. Irteera 15:00etan autobus geltokitik eta buelta 21:00etan. Izena emateko epea martxoaren 20an bukatzen da. Baimena sinatuta ekarri behar da. Informazio gehiago 948 56 47 85 telefonon. Animatu eta apuntatu zaituz Gaztegunean!!

Olaztik irakurle taldea. Martxoaren 27an, ostiralean, 21:00etan Sandor Marairen "La mujer justa" liburuz hizketatuko dira.

Arakildik sagardotegira. Arakilgo Udalak apirilaren 11rako Hernaniko Itxasburu sagardotegira irteera antolatu du, bazkaltzera. Sagardotegi eta barazkijaleendako menuak aukeran. Izen ematea martxoaren 25era arte izanen da zabalik.

Horretarako, udaletxetik pasa edo 948 50 01 01 edo info@arakil.net-era idatzi.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko.

Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

Tartariendako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daitezke.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoen zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota

bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina. Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraie ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan,

JAIOTZAK

- Izei Ostiza Olmedo, martxoaren 6an Urdiainen
- Emma Cambero Viñaras, martxoaren 8an Altsasun
- Ane Oraa Gonzalo, martxoaren 13an Altsasun

HERIOTZAK

- Asunción Baroja Ulibarri, martxoaren 12an Olaztin
- Pablo Goikoetxea Uribe, martxoaren 16an Altsasun

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatz, asteartean Iruztunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakana-mank.com posta elektronikon.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza www.tanatoriosirache.com



Maria Angeles Ganboa Azpiroz

Gauza asko esan genitzake baina ezin, sentitzen duguna askoz handiagoa delako.

Lakuntzako kintuek
Zugarramurdi-Lakuntza

Meza funerala martxoaren 22an goizeko 11:00etan Lakuntzako San Salvador elizan.

Naiara Goikoetxea Arteta

IV. urteurrena

Zure begien zintzotasunak inoiz ez gaituzula utziko adierazten digu.

Beti gure artean.

Zure lagunak




Francisco Javier Lazkoz Flores

IV. urteurrena

Bizirik gauden bitartean, gure bihotzean egonen zara.

Etxekoak
Lakuntza

Naiara Goikoetxea Arteta

Zure alfonbra magikora igo nintzen eta ametsik ederrenera egin nuen hegan. Zurekin ezagutu nituen zetazko munduak, argi-haizeak, zure barrearen alaitasuna urrezko izar-auria.

Eta zure epeltasunean gozo eta aski segur betirako babestu nintzen. Maite zaitut.




Garazi Garasa eta Naiara Goikoetxea

IV. urteurrena

Lau edo mila urte pasa arren beti izango zarete hemen, maitiak, gure alaitasunetan, gure malkoetan, gure bihotzetan. Muga guztien gainetik beti elkarrekin, beti batera.

Etxekoak

Maite zaituztegu

Asunción Baroja Ullibarri

Eskerrak eman nahi dizkizuegu une latz hauetan gure ondoan izan zareten guztiak.

Senideak
Olazti

Oroigarriak



Guaixe KOMUNIKAZIOA
948 564 275

Xabino

Gure ondoan jarraituko duzu askatasunerako bidean

Etxarriko Sortu



GRUPO
Funeraria
VASCONGADA
Ehorzketak
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: **943 106 222 • 943 376 980**

FUTBOLA

EGIARRETA ETA ZALDUA LIDER: Elomendiko Txapelketako 2. faseko 13. jardunaldian, A multzoan Apoloren kontra 3-2 gal-

du zuen Egiarretak eta B multzoan Zalduak 3-1 irabazi zion Basatiri. Egiarretak Unziti izango du arerio eta Zalduak Elomendi.

Txirrindularitza

Azkaratek bigarren garaipena eman dio Rural Kutxari

Rural Kutxa talde amateur sakan-darrak denboraldiko bigarren garaipena lortu du. Iker Azkaratek Oteizako 73. Circuito de Pascuaseko helmugan Lizarteko Arcas gainditu zuen, garaipena lortuz. Bestalde, larunbatean, Euskadi Fundazioko Jon Irisarri nagusitu zen Lizartzan, Rural Kutxako Victor Etxeberriekin sprint lehiatua jokatu eta gero. Rural Kutxako Jonathan Lastra 4.a izan zen eta Josu Zabala 8.a, biak 5 segundora.

SAEZ BIGARRENA MACARION

Espainiako Koparako baliagarria zen Macario Sari Nagusian Rural Kutxako Hector Saezek lan bikaina egin zuen. 145 km ihes eginda egon zen, Lokomotiv taldeko bi txirrindulari errusiarrekin batera. Saez saiatu zen, baina helmugan Lokomotiveko Zhuralvev nagusitu zen, Rural Kutxakoaren aurretik.

ERBITI 42.A PARIS-NIZAN

Richie Portek (Sky) irabazi zuen Paris-Niza. Movistarreko Imanol Erbiti 42.a sailkatu zen, 1:58ra. Hiriberrikoak lan handia egin zuen proban 9.a izan den Gorka Izagirrerendako.

Herri kirolak

Nafarroako Herri Kirol Jokoetako 3. Jardunaldia Igantzin

Nafar Kirol Jokoen laugarren jardunaldia igandean jokatu da Igantzin, 11:00etan, eta euria egiten badu, Arantzán. Proba konbinatuetan eta sokatiran lehiatuko dira Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastoletatik sortutako taldeak.

Duatloia

Altsasu duatleten topaleku

VI. Altsasuko Duatloia bihar jokatu da, larunbatean. Goizeko 10:30ean Nafar Kirol Jolasen Duatloi probaren txanda izango da, eta 16:00tan nagusien proba jokatu da

Duatloia ikuskizun paregabeaz gozatzeko aukera bikaina eskainiko du bihar, larunbatean, Altsasuko Sakana Triatloi Taldeak hainbat entitate eta babesleen laguntzarekin antolatutako VI. Altsasuko duatloia jokatu da. Goizean, 10:30ean, kategoria txikikoak ariko dira lehiatzen, Nafar Kirol Jokoetarako (NKJ) baliagarria den proban, eta arratsaldean, 16:00etan, proba nagusia jokatu da. Altsasuko duatloia Nafarroako eta Euskal Herriko Zirkuituetarako puntuagarria da.

10:30ean kategoria txikikoak, Txikian

Kategoria txikikoak Txioika haur ikastolaren inguruetan prestatutako zirkuituan lehiatuko dira. Aurrebenjaminak 10:30ean hasiko dira (250 m korrikari, 1 km bizikletan eta 125 m korrikari), benjaminak 10:50ean (500 m korrikari, 2 km bizikletan eta 250 m korrikari), kimuak 11:10ean (1 km korrikari, 4 km bizikletan eta 500 m korrikari) eta haurrak 12:00etan (2 km korrikari, 8 km bizikletan eta 1 km korrikari). Juniorrek eta kadeteek helduen proban parte hartuko dute, arratsaldean.

16:00etan helduak: 5 km-22 km-2,5 km

VI. Altsasuko Duatloia arratsaldeko 16:00tan abiatuko da Foruen Plazatik. 16:00etan emakumeak aterako dira eta 16:15ean gizonezkoak. Ibilbidea aurreko urteko berbera izango da. Altsasun prestatu-

Sergio Garcia bikain Arangurenen



Igandean jokatu zen, hotza nagusi zela, II. Aranguren Bailarako Duatloia. 185 duatletek osatu zuten proba (5 km korrikari, 20 km bizikletan eta 2,5 km korrikari). Irabazleak Saltoki Triatloi taldeko Raul Amatriain (57:15) eta Nuria Rodriguez (1:06:11) izan ziren. Sakandarrak lan bikaina egin zuten. Sergio Garcia de Eulate 11.a iritsi zen helmugara (1:00:06), Mikel Astiz 21.a (1:01:08), Saltoki taldean debutatu duen Felix Benjumea 26.a (1:01:36), Juan Luis Maiza 27.a (1:01:39) eta Fermin Azkargorta 100.a (1:09:26).



Villalobos, Mintegi eta Maiza aurrean

Proba nagusia baino lehen kategoria txikiko probak jokatu ziren, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarriak zirenak. Sakana Triatloi Taldeko kideak bikain aritu ziren. Benjaminetan Egoi Lakuntza 2.a sailkatu zen (8:56), kimuetan Ander Villalobos 11.a (17:55) eta haurren emakumezkoetan Leire Maiza 3.a (30:52). Haurren mailako gizonezkoetan, aldiz Unai Villalobos izan zen garaila (26:42), bere taldekide Iker Mintegiren aurretik (26:54).

tako 2,5 km-ko zirkuituari bi bira eman beharko diote korrika dua-

letek, segidan Iortia Kultur Gunearen aurrean dauden boxetan, tran-

www.navarratriathlon.com

Izena ematea eta informazio guztia. Gehiago www.sakanatri.com web gunean.

Sariak

* Lehen gizonezko eta emakumezkoak: 200 euro + garaikurra
* Bigarren gizonezko eta emakumezkoak: 125 euro + garaikurra
* Hirugarren gizonezko eta emakumezkoak: 75 euro + garaikurra
* Lehen kadeteak, lehen juniorrak, lehen 23 urtez azpikoak, lehen beterranoak eta lehen sakandarrak (gizonak eta emakumeak) trofeoa jasoko dute. Talde onenak saria jasoko du.

tsizio gunean, bizikleta hartu eta 22 km-ko distantzia osatzeko. Hasieran Olaztirano joko dute duatletek, Urbasako portua igotzen hasi, eta Altamirako bidegurutzetan beharoko bidea hartuko dute, Altamirajai-tsi. Altsasu zeharkatuta NA-1000 errepidean aurrera egingo dute, Zegama Ortzaurteko bidegurutzearaino. Bertan buelta hartuko dute, Altsasuko boxetara joan arte. Bizikleta utzi eta, bukatzeko, 2,5 km-ko zirkuituari bira bat eman beharko diote korrika, Foruen plazako helmugara iristeko. Helmugan edari eta janari hornidura izango da.

Aurreko urtean 185 duatleta aritu ziren proba nagusian eta Beñat Arnaiz (1:05:40) eta Maria Mendive (1:18:29) izan ziren azkarrak. 15 sakandar inguru aritu ziren eta Igor Flores izan zen azkarrarena, helmugan 16.a (1:08:57). Kategoria txikietan, aldiz, 135 duatleta lehiatu ziren. Atzo, Guaixeko erredakzioa ixterakoan Nafar Kirol Jolasetan 102 duatleta eta helduen proban 90 duatleta zeuden izena emanda.

Txirrindularitza

Urtasunen primerako debuta Japonian

Urdiaindarra hirugarrena sailkatu zen Japoniako Kopako lehen proban

Igandean hasi zen Japoniako Txirrindularitza Kopa, Utsunomyan

jokatutako probarekin (60 km). Team Ukyo taldearekin debutatu du Pablo Urtasunek. Urdiaindarra lan bikaina egin zuen eta hiruga-



rrena izan zen helmugan, esprint estuan. Bere taldekide Kazushige Kubokik irabazi zuen lasterketa eta Team Matrix taldeko Hayato Yoshida izan zen bigarrena.

Igandean bigarrena

Japonian parte hartzen duen lehen proban podiumera igotzea ez da edonolako eta pozik dago urdiaindarra. Igandean Kopako bigarren

proba jokatu du, Taiwaneko Tourra. Team Ukyo taldearen helburua Japoniako Kopa irabaztea da eta taldeak hasiera bikaina egin du.

Ana Santano
Bularra ez da soilik elikadura
Edoskitzerako amendako laguntza
Ikastaroak apirillean
• 9an, haurdunak
• 10ean, lehen hilabeteko amak
• 15ean, elikagai solidoak eta titia kentzea
635 811 106
Gartzia Ximenez 16 · Altsasu

www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsaldez zabalik
mariaeugenia
Arrainak
Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 · 948 467 950 / Isidoro Melero · 948 467 725

Kirolak



Magnak finalerdietan esan zion agur Kopari

Final laurdenetan Palma Futsali 2-1 irabazi eta gero, finalerdietan Barcelonak 4-1 hartu zuen menpean talde irurtzundarra

Asteburu honetan jokatu zen Ciudad Realen areto futboleko Espainiako Kopa. Ostiraleko final laurdenetan, Magna eta Palma Futsalen arteko partida oso lehiatua izan zen eta bi taldeak parez pare aritu ziren. Victorrek Magna aurreratu zuen, baina Palmak berehalak berdin zuen. Imanol Arregik arriskatzea erabaki zuen eta Victor atezain-jokalari moduan jarri zuen. Partida bukatzeko 3 segundoren faltan, Carlitosek garaipenaren gola sartu zuen, Magna Nafarroa finalerdietarako sailkatu zuen gola.

BARTZELONARI HORTZAK ERAKUTSI

Finalerdietan Bartzelonak eta Magnak ikuskizun bikaina eskaini zuten. 3. minuturako 2-0 aurreratu zuen Bartzelona. Magnak ez zuen etsi, kontraerasora pasa zen eta ongi eutsi zion Bartzelonaren etengabeko erasoari. Baina Wildek eta Rafa Usinek 4-0 aurreratu zuten Bartzelona. Imanol Arregik Victor atezain-jokalari jarri zuen eta Tolràk irurtzungoen lehen gola sartzea lortu zuen, baina markagailua ez zen gehiago mugitu eta 4-1 galduta Magnak aguresan behar izan zion Espainiako Kopari. "Finalerdian hasierako 5 minututan gaizki ibili ginen eta gero ongi jokatugenuen, baina Bartzelonari irabazteko bikain aritu behar duzu. Burua altxatu genuen eta bukaeraraino borrokatugenuen. Harro nagor horrekin" adierazi zuen Imanol Arregik.

ATSEDENA

Asteburu honetan atsedena izango du areto futboleko lehen mailako txapelketak.

Areto futbola

Bunker edo Racing San Migel?

Futsalsakana txapelketako finala jokatuko dute bi taldeek gaur, ostiralean, 20:00etan, Uharte Arakilen

Futsalsakana areto futbol txapelketa azken txanpara iritsi da. Aurreko asteburuan finalerdia jokatu ziren, eta finalerdi horietatik atera ziren gaur, ostiralean, final handia jokatuko duten bi taldeak: Bunker eta Racing San Migel.

Finalerdia

Lehen finalerdian Bunkerrek nagusitasun handiz irabazi zion Auzomotojoriki. Hasieran etxarriarrek aurre egin zieten altsasuarrei, baina ondoren Bunkerrek aurrea hartu zuen eta atsedena dirako 5-0 aurreratu zuen. Bigarren zatian Auzomotojorikek aukerak izan zituen baina ez zuen asmatzen, eta bukaeran 9-1 gailendu zuen Bunker. Aipatzekoa da talde altsasuarreko Arroyok 5 gol sartu zituela.

Beste finalerdia, Racing San Migel talde uhartearren eta Arbizuren artekoa, askoz ere borrokatuagoa izan zen. Tentsioz eta joko bikainez betetako partida izan zen bi taldeek eskaini zutena. Raulek Arbizu aurreratu zuen markagailuan eta uhartearrek



Aurreko urteko finalistak, Racing San Migel eta Arbizu. Arbizuk irabazi zuen.

buelta eman zioten partidari, Gorkak eta J. Mari Gorritik sartutako bi golekin. Baina atsedena dirako baino lehen Josu Reparazek berdintzea lortu zuen. Bigarren zatian bi atezainak adi egon ziren, bi taldeen jaurtiketak geldituz. Partida bukatzeko 3 minuturen faltan Danik Racingi garaipena eman zion gola sartu zuen. Arbizu atezain-jokalari formularekin parti-

<http://futsalsakana.es>

Txapelketako informazio guztia, finalerdietako bideoak barne.

da berdintzen saiatu zen, baina Racingeko defentsa sendo aritu zen eta garaipenari eutsi zioten. Bunker eta Racing San Migel taldeen arteko finala gaur jokatu da, ostiralean, 20:00etan, Uharte Arakilgo pilotalekuan.

Pilota

Laugarrenaren zain

Zubieta-Berasaluze II.a, Ezkurdi-Zabaleta eta Artola-Albisu daude finalerdietarako sailkatuta. Irujo-Barriola eta Oinatz-Aretxabaletaren arteko partidako irabazlea izango da sailkatuko den laugarren bikoa

Binakako Txapelketak azken unerarte arte emozioari eutsiko dio. Dagoeneko hiru bikotek lortu dute finalerdietara sailkatzea -Berasaluze II-Zubieta, Ezkurdi-Zabaleta eta Artola-Albisu-, baina laugarrena nor izango den asteburuko azken jardunaldian erabakiko da. Izan ere, Berasaluze II-Zubietak 22-19 irabazi zieten Altuna III-Barriolari eta hankaz gora jarri zuten txapelketa.

Ostiralean Artola-Albisuk finalerdietara sailkatzea lortu zuten, Ezkurdiari eta Zabaletari 16-22 irabazi eta gero. Sakandarrak

Sailkapena:

- 1. Berasaluze II-Zubieta 10 puntu
- 2. Ezkurdi-Zabaleta 9 puntu
- 3. Artola-Albisu 8 puntu
- 4. Irujo-Barriola 7 puntu
- 5. Oinatz-Aretxabaleta 6 puntu
- 6. Retegi Bi-Rezusta 5 puntu
- 7. Olaizola II-Beroiz 4 puntu
- 8. Xala-Merino II 3 puntu

ziren faboritoak, baina Ataungo atzelariak sekulako partida jokatu zuen eta Artola Ezkurdiak ekiditen saiatu zen, tantoa despeditzeko. Zabaletak ere maila bikaina eman zuen, baina lehen zatian egin zuen lan handia bigarren zatian nabaritu zitzaion. Ezkurdiak lana kendu nahi izan zion, hainbat akats eginez, eta, azkenean, 16-22 galdu zuten sakandarrak.

Zubietaren erakustaldia Bilbon



Bilboko Bizkaia pilotalekuan partida erabakigarri eta ikusgarria hartu zuen igandean. Finalerdietan dauden Berasaluze eta Zubieta batetik, eta finalerdietara sailkatzeko irabazi beharrean zeuden Irujo ordezkatzen duen Altuna III.a eta Barriola bestetik. Partida gogor eta ikusgarria izan zen, bi bikoak irabaztera atera zirelako. Azkenean, Berasaluze eta Zubieta gailendu ziren, 22-19, atzelari etxarriarrek egindako lan ikusgarriari esker hein handi batean. Zubietak partida bikaina egin zuen, Barriola dominatu zuen, bigarren zatian bereziki: pilotari altuera eman zion, kantxa bikain estali zuen eta Berasaluzeri pilota bikainak utzi zizkion. Horrela, garaipena ikusgarria lortu zuten.

Begiak Irunen

Asteburuan Binakako hasierako ligaxkako 14. eta azken jardunaldia jokatu da. Ezkurdiak eta Zabaletak Urrutikoetxea eta Beroiz izango dituzte aurkari. Partidan ez dago ezer jokoan, baina bi bikoek itxura ona eman nahiko dute eta garaipena lortzera aterako dira. Bestalde, Berasaluzek eta Zubietak Retegi Bi eta Rezusta izanen dituzte arerio. Hemen ere ez dago ezer jokoan, baina ligaxka garaipenarekin itxi nahiko dute biek. Begi guztiak Irunera jarrita egongo dira, Irujok eta Barriolak Oinatz eta Untoriaren kontra jokatuko dutelako, eta partidako irabazlea finalerdietarako sailkatuko delako.

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

25. JARDUNALDIA

CANTOLAGUA 2 - LAGUN ARTEA 1
Zangozan, Cantolaguak 50. minutuan gola sartu zuen eta Unai Bakaikok berdintzea lortu zuen, penaltiz. Tamalez, 78. minutuan Cantolaguak garaipenaren gola sartu zuen. Laguneko Xabi Burillok zelaia utzi behar izan zuen, lesionatuta. Atzo Mendi liderraren kontra jokatzekoa zen Lagun.

Sailkapena >>

- 1. Mendi 55 p
- 13. Lagun Artea 24 p

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA - SAN JUAN B
(igandean, 17:00etan, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

25. JARDUNALDIA

ETXARRI ARANATZ 2 - MENDILLORRI 0
ALTSASU 4 - SALESIANOS 1
Pablok aurreratu zuen Etxarri, 50. minutuan, eta handik 25 minutura garaipenaren gola sartu zuen Xabatek. Nahiz eta jokalaria bat gutxiagorekin geratu, partida ongi kontrolatu zuen liderrak. Atzo atzeratutako partida jokatzekoa zen Etxarri, Donezteberen kontra. Dantzalekuko zaleak gustura geratu ziren Altsasuren garaipenarekin. Salesianos izan zen markagailuan aurreratu zena, baina Altsasuk ongi erantzuten jakin zuen eta atsedena dirako berdintzea lortu zuen Javik. Bigarren zatian Joelek, Javik eta Aitorrek sartutako golei esker, 4-1 gailendu zuen Altsasu. Atzo atzeratutako partida jokatzekoa zen Berriozarren kontra.

Sailkapena >>

- 1. Etxarri Aranatz 59 p
- 8. Altsasu 35 p

Asteburuko jardunaldia

ETXARRI ARANATZ (atseden jardunaldia)
SAN JORGE - ALTSASU
(igandean, 17:00etan, Sanduzelain)

Txalaparta

Taberna
948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

JUANLUZENA
SAGARDOTEGIA
urtariletik maiatzera
tel. 948 604 571
680 652 183

ODERITZ

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

Binakako Txapelketa. Hasierako ligaxkako 14. jardunaldia
Urrutikoetxea-Beroiz / Ezkurdi-Zabaleta (ostiralean, 22:00etan, Aizarnazabalen. ETB1)
Berasaluze II-Zubieta / Retegi Bi-Rezusta (larunbatean, 17:30ean, Arnedon)
Irujo-Barriola / Oinatz-Untoria (larunbatean, 17:30ean, Irunen. laSexta)
Xala-Merino II / Artola-Albisu (igandean, 17:00etan, Eibarren. ETB1)

Mendi lasterketak

Munarriz seigarrena Jurramendin eta Katarain zazpigarrena Arriaranen



Beñat Katarain Arriaranen.

Sakandarrak I. Jurramendi Trailean

- 1.Imanol Goñi: 1:55:32
- 6.Aritz Munarriz: 2:01:11
- 9.Evaristo Noveleta: 2:06:54
- 10.Gorka Santesteban: 2:07:15
- 11.Aritz Ganboa: 2:08:31
- 18.Ander Erice: 2:11:24
- 20.Mikel Berastegi: 2:11:38
- 26.Alberto Goñi: 2:12:56
- 27.Fidel Jimenez: 2:12:56
- 45.Mikel Rubio: 2:19:31
- 51.Santi Galarza: 2:21:57
- 52.Mikel Iriarte: 2:23:01
- 77.Aitor Larraza: 2:29:44
- 121.Iñaki Morillas: 2:40:12
- 129.Juanjo Armendariz: 2:42:10
- 165.David Oroz: 2:51:16
- 166.Hugo Rubio: 2:51:16

*Oharra: Antolakuntzak ez du korrikalarien jaioterriko daturik eman. Hortaz, gerta daiteke sakandarren bat ez agertzea.

Sakandarrak IV. Arriarango Mendi Lasterketan

- 1.Ismail Razga: 1:07:18
- 7.Beñat Katarain: 1:12:50
- 23.Joxeja Maiza: 1:17:35
- 38.Alberto Razkin: 1:21:36
- 69.Iker Flores: 1:28:10
- 115.Ibai Arrese: 1:37:22
- 129.Iban Verdugo: 1:39:53
- 130.Gorka Verdugo: 1:39:53
- 166.Maria Goikoetxea: 1:46:30

Igandean jokatu zen I. Jurramendi Trail Monte Jurramendi lasterketa (22,7 km, 1250 metroko desnibela). Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketako lehendabiziko proba puntuagarria zen. 240 korrikalarik hartu zuten irteera, eta horietatik 208 iritsi ziren helmugara, Imanol Goñi buru zela (1:55:32). Proban ia 20 sakandarrek eman zuten izena, gehienak Sakana Bizirik taldekoak. Hiru sakandar sartu ziren Top-ten edo probako lehen 10 jokalarien artean: Aritz Munarriz, 6.a (2:01:11), Evaristo Noveleta irurtzundarra (2:06:54) eta Gorka Santesteban etxarrendarra (2:07:15). Bestalde, larunbatean IV. Arriarango Mendi Lasterketa jokatu zen Arriaranen (Beasain), Xabier Mendizabalen oroimenezko mendi lasterketa. 15 km pasatxoko proba zen, eta 201 korrikalarik osatu zuten. Azkarrenak Ismail Razga (1:07:18) eta Maria Zorroza (1:24:42) izan ziren. Proban aritu ziren korrikalari sakandarrek lan polita egin zuten, bereziki Beñat Katarainek. Lakuntzarra 7.a izan zen helmugan (1:12:50).

Atletismoa

Brontzezko Merzero

Unanuarra Espainiako Beterano 75 Kross Txapelketan hirugarrena izan zen

Asteburuan Espainiako Kross Txapelketak jokatu dira Alcobendasen, hainbat modalitateetan. Tartean, Espainiako Beteranoen Kross Txapelketa jokatu zen (6.250 m). Jose Mari Merzerok ez zuen txapelketan huts egin eta 75 urteko kategorian hirugarrena sailkatu zen (32:31). Hortaz, brontzezko dominarekin etorri zaigu unanuarra Madrildik, kontentua. Sasoiko jarraitzen du Merzerok.

Izaskun Beunza

Beteranoen probaz aparte, Espainiako autonomien arteko Kross Txapelketak eta Indibidualak jokatu ziren. Emakumezkoen maila



Merzero, eskuinean, podiumean.

absolutuan (8.050 m) Izaskun Beunza olaztiarra 79. postuan iritsi zen helmugara (34:10). Autonomiako txapelketan 12.ak sailkatu ziren emakume nafarrak. Aipagarria da Nafarroako selekzioak uniforme-rik gabe parte hartu zuela Espainiako Txapelketan. Nonbaitaurrekontuak ez zuen horretarako ematen.

Sakandarrak Donostian

Igandean XIII. Udaberri Lasterketa jokatu zen Donostian (10 km). 1.469 korrikalarik osatu zuten proba eta Asier Cuevas izan zen azkarrena (31:42). Tartean, Joni Araña 82.a izan zen (37:23), Alatz Agirre 107.a (37:54), Xabier Zabalza 552.a (47:06), Marian Ijurra 714.a (49:21), eta Ana Parache 1122.a (55:13).



Emakumeak lilasterkan

Eguraldi kaxkarrari aurre eginez, adin guztietako 89 emakume aritu ziren Altsasuko II. Lilasterketan

Igandeko eguraldi kaxkarrak etxean gozo-gozo gelditzera gonbidatzen zuten. Baina euriari eta hotzari aurre eginez, adin guztietako 89 emakumek erantzun zioten Altsasuko Emakumeen Bilguneak egin-dako gonbitari: Altsasuko II. Lilasterkan parte hartzeari.

Eguerdiko 12:00etan eman zitzaion hasiera emakumeen lasterketa parte-hartzaile ez-lehiakorri. Emakume gehienek korrika osatu zuten 4 km inguruko ibilbidea, baina batzuk bizikletan egin zuten bidea, baita patinetan ere. Izan ere, parte-hartzea zen kontua. Altsasuko karriketatik barna korrikan, bizikletan edo patinetan ibili ziren, peto morea gainean zutela. Proba bukatzerakoan merezitako gosariatzeko aukera izan zuten guztiek. Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak eskerrak eman nahi dizkie Lilatoia aurrera ateratzeko lanean aritu ziren boluntario guz-



Gehienek korrikan, baina patinetan edo bizikletan egin zuen ere egon zen.

tiei, bereziki Dantzaleku Sakana klubari, DYARI, Virginia Ruiz de Egin medikuari eta ekitaldia zabaltsen lagundu dieten guztiei. "Baina bereziki Altsasuko kaleak morez koloreztatu zuten emakumeak eskertu eta zoriondu nahi ditugu. Igandeko eguna egunerokota-

sun eta ohikoa bihurtzeko lanean jarraitzea da orain dagokiguna. Lilasterketa izan dadin lehen urratsa eta tranpolina, emakumeok proba mistoetarako jauzia egin dezagun. Kaleak ere gureak dira" adierazi du Emakumeen Bilgune-ko teknikari Oihana Gallok.

CARNICERIA I. ARREGUI
HARATEGI ETA URDAITEGIA

tel. 948 576 067

Sakanako hiltegiaren hildako haragia

Etxeko obradorea:

- tripota
- tripotxa
- mihia
- kalluak
- saltxitxak
- frituak

Herriko plaza z/g LAKUNTZA



Nonerabili

LIZARDI ESTETIKA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ
%5eko deskontua depilazio-etan.

HOSTO GORRI ALTZARIAK

ETXARRI ARANATZ
Dendako produktuetan %5eko deskontua.

ARGIRO OPTIKA

ETXARRI ARANATZ
%15eko deskontua graduatuetan eta %5 eguzkitakotan.

ZELANDI KIROLDEGIA

ALTSASU
Lehenengo matrikula doan.

GOROSTI

ALTSASU
30 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-balea hurrengo erosketarako.

LA CIGÜEÑA

ALTSASU
60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-balea hurrengo erosketarako.

IZARA

ALTSASU
%10eko deskontua etxeko jantzi eta osagarrietan eta %5eko deskontua gortina eta enkarguetan (eskaintza ez metagarria).

TXIKITXO

ALTSASU
60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-txartel bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

NAMASTE YOGA

ALTSASU
Bi yoga klase doan.

TIPI TAPA OINETAKOAK

ALTSASU
60€ko erosketatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

Lazkoz finalera

Nafarroako Bertsolari Txapelketarako txartela lortu zuen etxarriarrak, ez, ordea, Oier Lakuntzak

Bertsozaleek betetako Burlatako kultur etxean erabakiz Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalen arituko den zortzikotea. Azken geltoki horretarako txartela eskuratu zuen Eneko Lazkoz Martinek atzoko saioa irabazita. Finalerdietako hirugarren puntuazio onena ere eskuratu zuen. Saio serioa egin zuen etxarriarrak, joko-

sarrerak >

Finalerako sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian eskuratu daitezke edo Etxarri-Aranazko Xapatero.

an zegoena kontuan hartuta. Beste aldean, Oier Lakuntza Irigoien izan zen. Ez zen bere mailan aritu eta seigarren bukatu zuen Burlatan. Finalerdietako 16. puntuazioa izan da urdiandarrarena.



Lazkozek bi aste ditu finala prestatzeko. Hilaren 28an jokatu da Elizondoko frontoian. Etxarriarrarekin batera, Elizondon

bertsotan ariko dira: Julio Soto, Xabier Terreros, Aimar Karrika, Ander Fuentes "Itturri", Eneko Fernandez, Oskar Estanga eta Julen Zelaieta.

bazterretik

Galder Gonzalez Larrañaga

Nafarroa turismoaren kontra

Harrigarria iruditu zait Gipuzkoako Foru Aldundiak errepideetan jarri dituen kartelen inguruan Nafarroako Gobernuak, bere inguruko medio ultra-zentratuek eta, tamalez, euren burua abertzaleztat duten batzuen aldetik ere. UPNren gobernuak duen obsesio identitariotik baino ezin da ulertu turismoa bultzatzeko diren kartel batzuen kontra egitea.

Askok pentsatuko duzue hitz egingo dudala Nafarroak Euskal Estatu baten eraikuntzan izan behar duen paper historiko eta zentralaren inguruan. Baina ez, gai hau askoz praktikoa da. Ez da historiagatik, ez da borroka identitarioagatik: gai ekonomiko bat da. Gipuzkoa izan da turismoan gorakadarak handiena izan duen herrialdea. Barne Produktu Gordinaren ehuneko gero eta handiagoa ematen du turismoak, eta hain txikia den herri batek lurralde ezberdinetako eskaintza egitea guztiz beharrezkoa da.

Horregatik iruditzen zait hain larria Gasteizko Gobernuak Alemanian Bizkaia bakarrik promozionatzea. Horregatik iruditzen zait hain beharrezkoa A8a hartuta Eibar baino lehenago Bizkaia promozionatzea. Edo Lapurdira iristen ari zarela Ipar Euskal Herria promozionatzea. Edo A15a hartuta Iruñeko gotorlekua, Aralar mendilerroa edo Plazaola bidea promozionatzea. Baina Nafarroan ez omen dute horrela ikusten. Eurek ordaintzen ez duten publizitate positiboa egitea ez omen zaie ideia ona iruditzen.

Eraikuntza nazionala turismoan egiteko garaian gaude. Udalbiltzak (edo Udalbiltza ez bada, beste norbaitek) ibilbide nazionalak bultzatu behar ko lituzke, gai ezberdinen inguruan. Interesa dago Euskal Herria ezagutzeko, kultura, ondarea eta historia ezagutzeko. Interesa egon daiteke gertuko historia, memoria eta politikaren inguruan ikasteko (hor interesgarria Partizan Travelek egiten duen lana). Turismoa aldatzen ari da, eta Nafarroa kontrako norabidean doa.



Haur kantariak Lakuntzan

Euskarazko kantu zaletasuna sustatzeko antolatzen diren jaialdietatik lehena hartu zuen Lakuntzak

Kultur etxea betea zela mustu ziren aurtengo Nafarroako Haur eta Gaztetxo Jaialdiak Lakuntzan. Leitza eta Lesakako taldeekin batera Lakuntzako Luis Fuentes ikastetxe publikoko eta San Saastin musika eskolako eta Arbizuko eta Olatzagutiko ikastetxe publikoetako ikasleek parte hartu zuten. Haie-

tako askok azken jaialdian egingen dute topo, maiatzean, Burlatan.

Hamaika talde igo ziren oholtzara

Jaialdien antolatzaile Amaia Dominguezek esan digunez, "zorionez dena primeran aterazten". Antolaketa lanean lagundu dioten Lakuntzako Ane Miren Iruetagoiena eta Arbizuko Amaia Errazkin irakasleei esker ona azaldu die. Baita aurkezle eta soinu teknikari aritu ziren Josema Leitza, Ricardo Aretari eta Lakuntzako Udalareri ere.

di-da >>

ILUSTRAZIOAK

ALBUM ILUSTRATUEN TAILERRERAKO IZEN EMATEA ZABALIK

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak album ilustratua sortzeko tailerra antolatu du. Apirilaren 24an, ostiralez, 18:00etatik 20:00etara izanen da, Ziordiko liburutegian.

APIRILAREN 17RA ARTE EMAN DAITEKE IZENA

Yolanda Arrieta eta Aitziber Alonso izanen dira Ziordian haurrekin ariko direnak. Lehen Hezkuntzako ikasleei, 6 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago tailerra. Izen ematea apirilaren 17ra arte egonen da zabalik Ziordiko Liburutegian bertan (948 468 970 edo zior-dialib@cederna.es).

Doktorea emakumearen sexualitateaz eszenatokitik

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Mastur Batetu Solita Catalina doktorea, identitate eta txis galeretan aditua, bihar Altsasun izanen da. Txumino power revolution izeneko bere programa garatzeko gonbitea luzatuko du. Mastur Batetu Solita Catalina doktorearen iritzi buru edo sabai energetikoa erakitzeke hura landu beharrean oinarria jartzea garrantzitsuagoa da. Eta oinarri hori, doktorearen arabera, pelbis-zoru boteretsu bat da. Doktoreak, beraz, eszenatokitik pelbis-zoru boteretsua izateko bere programaren puntuak aletuko ditu.

Bakarrizketa eta performancearen bidez doktoreak bere pro-

grama martxan jartzen duenean hasiko dira komeriak. *Ovarios verdes fritos* ikuskizun probokatibo, apurtzaile eta dibertigarria aurkeztuko du Detritus Teatrus konpainiak Belen Nevadoren eskutik. Antzezlanak erotismoa begirada

fresko eta berritzaile baten ikuspuntutik erakusten du. Konplexuak alde batera utzita, plazera inork ez duela ematen dio, barruan daramagula. Doktoreak dioen moduan: gustua nirea da, plazera zuena.





Nafarroako Orkestra Sinfonikoa ren eta Altsasuren arteko elkartrukea

Heldu den astean, asteartetik larunbatera izanen da, musika eragileen arteko hartu-eman ugariak

Nafarroako Orkestra Sinfonikoak Altsasura Trotamundosn programa ekarriko du. Orkestrako gerente Joaquín Romerok aurkezpenen esan zuenez, “ideia ez da guk erakustea, elkartrukatzea baizik. Gure ohiko erreperitorioa ekarriko dugu, baina eskualdeko tokiko erreperitorioa ikastera, bustitzera, bagatoz ere. Altsasuko erreperitorioa orkestrarako moldatu dugu”.

Elkartrukea, beraz, Romerok nabarmendu nahi izan duenez: “guretako garrantzitsua da, beste esperientzia batzuk jasotzera heldu gara. Musika denak gara.

Denok egiten dugu. Ez dago bat bestea baino garrantzitsuagoa den musikarik. Musika kultur adierazpena da. Zenbat eta aberatsagoa izan orduan eta aberatsagoa izanen da gizartea. Eskaintzera eta hartzera heldu gara.

Bost egun Altsasun

Romerok argitu duenez, “gozamen soziala hobetzeko egindako programa da Trotamundosn. Kulturehuna eta bizitza sortzeko helburua du”. Hori nola gauzatu duen azaldu digu orkestrako programen koordinatzaile Ione Arronizek: “Alde batetik, musika eskolako ikasleekin ere topaketak izanen dira. Orkestrako musika bakarlariak etorriko dira. Musika tresna bakoitzeko ikasleekin saioak egingen dituzte orkestrako kideek”.

Nafarroako Orkestra Sinfoni-

koak kontzertutara joan ezin daitezken pertsona taldeei musika gerturatu nahi die. Horregatik, “gu haien etxeetara gerturatuko gara. Aita Barandiaran adinduen egoitzara eta Josefina Arregi klinikara biolontxelo hiruko batekin joanen gara”. Horrekin batera, jubilatu elkartearen egoitzan kamara kontzertua eskainiko dute orkestrako kideek: “zarzuelen aukeraketa bat izanen da”, zehaztu du Arronizek.

Koordinatzaileak azaldu digunez, altsasuko hiru ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako ikasleekin ariko dira orkestrako musikariak ere. “Ana Hernandez musika-pedagogoak osatutako gidoia garatuko dute”. Egonaldia orkestrak Altsasuko musika eragile guztiez lagunduta emanen duen kontzertuarekin despedituko da. Martxoaren 28ko emanaldirako sarrera guztiak dagoeneko agortuak daude.

Trotamundosn programaz

Nafarroako Orkestra Sinfonikoak OSN Social egitarau zabalara mar txan jarri zuten joan den urtean. “Musika gure bizitzetan oso garrantzitsua da. Gizarteak garatzeko tresna boteretsua da. Gozatzeko bitartekoa da musika. Eta gozamenak ongizatea hobetzen digu. Hezkuntzako tresna indartsua ere bada musika. Aldi berean, gizarteratzeko, elkartrukerako bitarteko bat ere bada musika. Lengoai unibertsal da. Musika tresna eta topa-gune gisa zabaldu nahi dugu”. Oinarri hori du OSN Social, Romerok kontatu duenez. Arronizek azaldu digunez, “orkestrak areto handietan kontzertu handiak ematen segitzen du, baina joan den urtetik gure jarduna zabaldu eta hurbiltzeko konpromiso bat daukagu. Denen arteko

kultur truke bat egon dadin. Gure kasuan musika truke bat da, musika zabaltzeko eta denok disfrutatzeko”.

Hainbat programek osatzen dute OSN Social eta haien helburua orkestraren jarduna Iruñetik deszentralizatzea eta Nafarroara zabaltzea eta hurbiltzea da. Romeroren esanetan, “Gozamen soziala hobetzeko egindako programa da Trotamundosn”. Joan den urtean Lizarran abiarazi zuten programa. Pratrimentosn programaren bidez obrak berreskuratzen dute. Museoekin eta Iruñeko Planetarioarekin Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako programa ere badu orkestrak. Aurkezpenen Garazi Urrestarazu Zubizarreta alkateak “musika aukera eskaintzeagatik” orkestra herritara hurbiltzeko ahalegina eskertu zuen. Baita Altsasu Trotamundosn programako egoitza gisa aukeratua izatea ere.



Zure familia handitu eta aukera bat eman

ASOCIACION BISILA

BISILA ELKARTEA
Ginea Ekuatorialeko haurrak laguntzen dituen GKEa gara

Begoña 653 565 110 / 609 665 534
asociacionbisila@hotmail.com

decoraciones

zuntaipe

Javier Malo Azpiroz

Zure ideiak margotzen ditugu

Aurrekontua eskatu konpromezurik gabe

699 938 342

Egitaraua

>> **Martxoak 24, asteartea**
17:00etan NOSeko bakarlariarekin topaketak. Altsasuko Udai Musika Eskola.

>> **Martxoak 25, asteazkena**
16:00etan Txelo hirukotearen kontzertua, Josefina Arregi klinikari.
18:00etan Txelo hirukotearen kontzertua, Aita Barandiaran adinduen egoitzan.

G. Tartini *Adagio Cantabile*
L.V. Beethoven *Trio Op. 87*
W. Lutoslawsky *Gaik*
M. Jarre *Dr. Zhivagoko Lararen pieza*
S. Myers *The Deerhunterko Cavatina*
D. Stubbs *Jazz Tchaikovsky*
G. Kahn y W. Donaldson *Making Whoopee*

>> **Maiatzak 26, osteguna**
10:00etan Kameran zehar, Sagrado Corazon ikastetxean.
11:30ean Kameran zehar, Zelandi ikastetxe publikoan.

J. Guridi *Erronda kanta*
L. Boccherini *Minueto*
J. Brahms *Hungariar dantza 5. zbkia*
J. Strauss *Vienako basoen baltsa*
I. Albéniz *Tango, Op. 165, n° 2*
A. Piazzola *Libertango*
W.A. Mozart *Alla turca*
(K. 331 sonatakoa)

S. Joplin *Paragon Rag*
P. Tchaikovsky *Intxaur-hauskailuko txinatar dantza*
Aurkezle-pedagogoak: Ana Hernández.

19:00etan Zarzuela aukeraketa kontzertua, La Unión jubilatu eta pentsiodunen elkartean.

G. Gimenez *La Torre del Oro. Preludioa*
F. Moreno Torroba *La Chulapona*. Hautaketa
F. Chueca y J. Valverde *El año pasado por agua*. Hautaketa
Zuzendaria: Joseba Torre

>> **Martxoak 27, ostirala**
10:00etan Kamaran zehar, Iñigo Aritzai ikastola. Gainontzeko ikastetxeen egitarau bera.

>> **Martxoak 28, larunbata**
20:00etan Trotamundosn, kontzertu parte-hartzailea. Iortia kultur gunean.

G. Bizet *Carmen* Suite n°1
G. Verdi *Rigoletto*, Caro Nome.
Bakarlaria: Sofia Esparza.
G. Bizet *Carmen, Je dis que rien ne m'épouvante*. Bakarlaria: Maria Aiestaran.
C. Gounod *Romeo eta Julieta, Je veux vivre*. Bakarlaria: Maria Lakuntza.
L. Aramburu *Hartzaren Ehiza, orkestra eta txistu bandarako*.
E. Zelaia Bariaziodun baltsa, orkestra eta akordeoirako.
F.A. Barbieri *Orkestra eta bandarako sinfonia*
W.A. Mozart *Ave Verum*, abesbatzaekin.
G. Verdi *Nabucco, Va pensiero*, esklaboen korua, abesbatzarekin.

Zuzendaria: Joseba Torre
Musikariak: Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, Eñrike Zelaia akordeoilaria, Altsasuko Dantza Eskola, Burundar Txistulariak, Haize Berriak banda eta Erkudengo Ama abesbatza.

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 40%	euria: 55%	euria: 65%	euria: 65%	euria: 55%	euria: 88%	euria: 68%
Min: 5 Max: 7	Min: 4 Max: 9	Min: 4 Max: 5	Min: 2 Max: 10	Min: 3 Max: 9	Min: 4 Max: 7	Min: 2 Max: 9

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	20	1	39.4
Etxarri A.	21.4	0,15	37.2
Altsasu	20	1	34.1
Aralar	14.3	-3.2	22
Urbasa	10	-1	26.7

: ilargiaren aldia >>

	ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
	20	27	4	12

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Marsuko bazkide zozketa

MARSUKO SARIAK:

1. SARIA: Ekainberri museorako 2 sarrera. Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Irrien lagunak aldizkaria.

2.3.4.SARIAK: Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturaleren lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Irrien lagunak aldizkaria.

>> 11 galdera

Joxe Mari Merzero
Unanuko korrikalaria
Testua: Maialen Huarte Arano

Joxe Mari Merzero unanuarrek Madrilgo lasterketan hirugarren gelditu da asteburuan. 76 urte beteko ditu apirilean baina oraindik osasuntsu ikusten du bere burua.



1. **Noiz hasi zinen lasterka?**
Haurra nintzenetik ibili naiz hara eta hona korrika. Leku batetik bestera joan behar zenean korrika egiten nuen bidea. Familia artzaina da eta beti ibili izan gara mendian gora eta behera. Hor hasi ziren nire hastapenak.
2. **Gaztetan lehiari ere aritutakoa zara.**
Bai, 23 urte bete nituen arte modu sakonago batean lantzen hasi nintzen. Txapelketa askotan aritu naiz korrika eta postu onak lortu ditut. Lehiaketak sakrifizio handia eskatzen du baina, hala ere, gustatu egiten zitzaidan ahal nuen lasterketa guztietan parte hartzea.
3. **Lehia utzi zenuen baina ez afizioa.**
23 urte eta 40 urte artean gehiago izan da afizioa, baina, denbora gutxi izan nuen urte haietan korrikan ibiltzeko. 40 urtetik aurrera hasi naiz lasterketan gozatzeko.
4. **Mota guztietako lasterketan hartu duzu parte.**
Maratoiak, maratoi-erdiak, herri lasterketak... denak dira nire gustuko. Urrea, zilarra eta brontzea ditut domina. Atzeragoko postuetan ere geratutakoa naiz.
5. **Atzerrian ere izan zara korrika?**

New York, Paris, Londres, Praga... baita gertuago ere, Donostian, A Coruña... Atzerrian maratoi asko lortu ditut. Dena dela, maratoiak korritzeari duela lau urte utzi nion, adinak esfortzu gehiegi egitea behartzen du eta 42 kilometro baino gehiago dira maratoi bakoitzak.

6 Gainerako lasterketak egiten dituzu orain?
Herri lasterketan aritzen naiz orain gehien bat. 2009. urtetik 2012ra bitartean lehen hiru postuetan geratzea lortu dut horietako askotan. Gustura aritzen naiz halakoetan parte hartzen.

7. Zer da zuretzako korrika egin ahal izatea?
Korrika egiteak erlaxatu egiten nau, bizio bat da. Osasuna dudana bitartean korrikan aritzea da nire erronka.

8. Entrenatzea eskatzen du lasterketan parte hartzeak?
Astean lau aldiz korrika egitera ateratzen naiz. Egun txarrak ere izaten ditut, gorputza bere onenean ez dagoela sentitzen dudana egun horiek. Baina ez da arazo-

rik, lasai hartu eta hobeki nagoen unerako uzten dut korrika egitea ateratzeara.

9. 76 urte beteko dituzu apirilean. Nola lortu duzu adin horrekin horren ongi segitzea gustatzen zaizuna egiten?
Ez dut sekula osasun arazorik izan. Osasuntsu jan eta osasuntsu bizitzearen seinale dela esanen nuke. Lasterka aritzeak ematen dit niri behar dudana energia. Guztia ongi kudeatzean dago gakoak, oreka bilatzean.

10. Beste lasterkariekin aritzen zarenean zer esaten dizute?
"Fuera de serie bat naizela". Askok esaten didate nire adinean ni bezain ongi egon nahiko luketela eta korrika egiten segitzea.

11. Osasuntsua da beraz korrika egitea?
Guztiz osasuntsua. Gero eta jende gehiagok hartu du gainera afizioa, esanen nuke. Hasi nahi duen horri gomendatuko nioke poliki hastea, zaila dela hasieran konstantzia bat mantentzea baina konstantzerako kilometroak zenbatzen hasiko dira korrika.

SAKANAN, MARTXOAK 27-28 GAUA

EUSK AHAL DUN!

19. korrika

18. korrika

Korrika zuzenean

Beleixe irratiari

goizaldeko 2:00etatik 7:30etara

Entzun!

beleixe

107.3 FM

Online: www.guaixe.eus